

Año LII. urtea

130 - 2020

Uztaila-abendua

Julio-diciembre



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

Gulibarko aldaeraren inguruan

(2 - Txulapaingo azpialdaera: Ergoiena)

Koldo ARTOLA

Gulibarko aldaeraren inguruan

(2 – Txulapaingo azpialdaera: Ergoiena)

Acerca de la variedad de Gulina (2 – Subvariedad de Juslapeña: Ergoiena)

A look at the Gulina variety (2 – Sub-variety of Juslapeña: Ergoiena)

Koldo ARTOLA

Donostiako Aranzadi Zientzi Elkarteko Etnografi Saila

kmartola@gmail.com

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv.130.1>

Esker biziak damazkiot lana irakurri eta zenbait iradokizun egin didan Xabier semeari, Euskal Filologian lizentziaduna denari.

Jasotze data: 2020/01/20. Behin-behineko onartze data: 2020/07/13. Behin betiko onartze data: 2020/08/05.

LABURPENA

Louis-Lucien Bonaparte printzeak, euskara sailkatzeko bere ahaleginean, nafar Pirinioko bere talaiatik so eginez nonbait, Iruñez haraindiko multzo handi bati *aldaera* gisako kategoria iritzi eta *subdialecto ultra-pamplonés* gisako deitura eman zion, honen barruan Guliako hau, Oltzako eta Zizurko aldaerak kokatuz. Hori guztia, jakina denez, *hegoaldeko goi-nafarrera* ere deitu zuen euskalkiaren barruan. Saio honen azpitituluan dakusagunez, printzeak Guliako aldaera honen baitan tartekatu eta *de Juslapeña* izendatu zuen azpialdaera ezagutzeko ekarpena egiten saiatu gara, duela hogeita hamar urte inguru bildu genituen testu batzuk hona ekarriz.

Gako hitzak: Hego-nafarrera; Gulibarko aldaera (Txulapaingo azpialdaera); euskal dialektologia.

RESUMEN

Cuando el vascófilo Louis-Lucien Bonaparte estableció su clasificación de las hablas vascas, allí, en algún lugar del Pirineo navarro, designó al conjunto de variedades de más allá de Pamplona como *subdialecto ultra-pamplonés*, formado por las variedades de *Cizur*, *Olza* y esta de *Gulina*, todas ellas dentro del dialecto *alto navarro meridional*. Según vemos en el subtítulo de esta entrega, hemos traído aquí, ahora, materiales recogidos en el valle de Juslapeña hace unos treinta años, valle cuyo euskara integró el príncipe, como subvariedad, dentro de la variedad antes mencionada de *Gulina*.

Palabras clave: Euskera navarro meridional; variedad de *Gulina* (subvariedad de Juslapeña); dialectología vasca.

ABSTRACT

When, somewhere in the Navarre Pyrenees, Prince Louis-Lucien Bonaparte, an expert in Basque studies, established his classification of the Basque language, he named the set of varieties from beyond Pamplona as an *ultra-pamplonés sub-dialect*, formed by the varieties of *Cizur*, *Olza* and this one from *Gulina*, all coming under the dialect of *alto navarro meridional* (*Southern Upper-Navarrese*). As can be seen in the sub-title of this study, we have brought here today materials collected in the valley of Juslapeña some thirty years ago. The prince classified the Basque spoken in this valley as a sub-variety, within the aforementioned variety of *Gulina*.

Keywords: Basque southern Navarrese; *Gulina* variety (sub-variety of Juslapeña); Basque dialectology.

1. SARRERA LABURRA. 2. DATUEN TRANSKRIPZIORAKO OHARRAK. 3. AZPIALDAERA HONETAKO EZAUGARRIAK. 4. SAIO HONETAKO BERRIEMAILEEN ZERRENDA. 5. BEORBURU. 5.1. Esteban Garbisu Aranguren. 6. OTSAKAR. 6.1. Fermina Goldaraz Zubieta. 6.2. Manuel Egozkuezabal Galain. 7. OSINAGA. 7.1. Ignacia Redin Iragi. 8. ERREFE-RENTZIAK.

1. SARRERA LABURRA

Honen aurreko saioa Gulibarko zenbait herritako euskararen hainbat lekukotasun hona ekartzeko baliatu genuen gisan (Artola, 2020), oraingo hau eta hurrengo Txulapaingo ibarrean ere inoiz bilduriko ekaiak lerro hauetara iraultzeko baliatuko ditugu.

Pedro de Yrizarrek euskal aditzaren morfologiak argitaratu zituen lanetan proposatu bezala, Gulibarko aldaera honetatik bi azpialdaera ateratzera mugatu gara, Gulibarkoa eta Txulapaingoa, hark horretarako behar besteko argudioak zituela erreparaturik (Yrizar, 1992).

Oraingo lerrootan, beraz, Txulapaingo azpialdaeraren eremuko herri batzuetan grabatzera iritsi ginen eta, orokorrean, bizitzarekin berarekin zerikusi zuzena duten sinesmen, istorio, tradizio, pasadizo eta abarren sorta ederra prestatu dugu, horrek guztiak zer ikastekorik emanen duen itxaropenez.

Ibar honen mendebaldean kokatu Ergoienako euskarari eskainiriko saio honetan Beorburu da, diferentzia handiz, informazio gehien dakarrena, Otsakar eta Osinaga kide dituela. Izan ere, bi herri horietan bildurikoa gutxi samar izateaz gainera, Otsakarko berriemailetarik batek eta Osinagakoak hondar-euskara baizik ez zuten erakutsi.

Ergoiena osatzen duten herriak, bide batez esanda, honakoak dira: Aristregi, Osinaga, Beorburu, Otsakar, Nuin eta Larraiotz.

2. DATUEN TRANSKRIPZIORAKO OHARRAK

Bokal batzuen itxierak: *a* eta *e* artekoa *ä* idatzi dugu; *e* eta *i* artekoa *ë*; *o* eta *u* artekoa, *ö*. Inoiz, *i* eta *u* arteko bat aditu uste izan dugunean, *ü* idatzi dugu.

Azken horrek bitxi samarra iduri badezake ere, oroitarazi nahi dugu Bonaparteren eskuizkribuetan hitzek artikulua hartzean zer-nola jokatzeko zuten adierazteko hark berak idatziriko orrian¹ zera irakur daitekeela: «Uriz: á, eá, ía, oá, úa», azken horren kasuan, *u*-aren gainean eta tildearen azpian, puntutxo bat ageri dela.

Soinu hori, Artzibarko eta Erroibarko aldaeretatik Olaibarkora igarotzean desager-tuz joan bada ere –Odietako Gaskue, Gelbentzu eta Ziaurritzen doi-doi sumatu dugu–, azken ibar horretatik mendebaldera ere, Txulapaingo Beorburun zehazki, hauteman dugu, Usin ez opaturik ere.

Ia aditzen ez diren hizkiak, honen aurreneko saioan egin bezala, parentesi artean idatzi ditugu. Zalantzagarrria iruditu zaigun hitzaren ondoan, parentesi arteko galde-ra-marka (?) idatzi dugu eta harridura sorrarazi digunaren alboan harridura-marka (!). Halaber, pasarte ilun batzuk parentesien arteko eten-puntuak idatziz [...] ekidin ditugu.

Parentesi karratuak [] erabili ditugu inoiz, hitzen edo esaldi motzen bat testuen barruan tartekatu dugunean, horietan jasotzen dena argitzeko asmoz.

Beste kontu bat da galdera-markena. Irakurlea ohartuko denez, zeinu hori ez dugu soilik galderetan erabili, baizik berriemaileek zenbait esaldiri galdera-itxurako intonazioa eman dioten hainbat alditan ere bai.

Tildeak, gure lehenagoko saioen batean bestelako asmoa erakutsi arren, testu batzuetan mantendu ditugu. Hori horrela, duela ez aspaldiko gure ohiturari jarraikiz, bi eratako azentzuak erabili ditugu: indar edo intentsitate handikoa (´) bata eta hori baino txikiagokoa (˘) bestea.

3. AZPIALDAERA HONETAKO EZAUGARRIAK

Txulapaingo mintzairaren ezaugarriez honen aurreko saioan (Artola, 2020) jardun genuenez, balizko interesduna lan horretara bideratuko dugu: «Gulibarko aldaeraren inguruan (1 – Gulibarko berezko aldaera)».

1 Ik. Pagola, Alkiza, Beola, Iribar & Iribar (1996, azala).

4. SAIO HONETAKO BERRIEMAILEEN ZERRENDA

Beorburu

Esteban Garbisu Aranguren, 1911
aita: Beorburu / ama: Uharte-Arakil

Otsakar

Fermina Goldaraz Zubieta, 1902
aita: Otsakar / ama: Atallu (Araitz)
eta
Manuel Egozkuezabal Galain, 1906
aita: Nuin / ama: Nuin

Osinaga

Ignacia Redin Iragi, 1927
aita: Osinaga / ama: Nabatz

Jarraiko testuetan joan den mendeko laurogeiko hamarkadan Txulapainen aurkitu genuen egoera tamalaren berri jasotzen da, gaurgero belaunaldiz belaunaldi transmitituriko euskara azken muturrera eramán izanaren ispilu garden baten moduan.

Izan ere, aski bereizituriko lau maila aurkitu uste izan dugu azken hiztunen arrastoan ibili eta berek eskaini ahal izan zuten emaitzari begira.

Lehenengoan, Beorburuko berriemailea genuke. Honek erraztasunez hitz egiten zuen, maiz askotan parentesi luzeak eta zalantzak agerturik ere, luzaz mintzatu gabe egon izanaren ondorioz, ziur aski.

Bigarreanean, Otsakarko andere Fermina koka genezake, artean, elkarrizketa bat mantendu ahal izateko gauza baitzen bera. Halere, laguntza pixka bat behar izan zuen maiz eta, bere erritmoa oso mantsoa izateaz gainera, esaldi motzak egitera mugatu zen, ezinbestean, antza.

Hirugarrenean, Otsakar bereko jaun Manuel dugu. Hau gai zen, gehienetan, esaten zitzaiona ulertzeko eta, aldi batzuetan, baita doi-doi erantzuteko ere. Bere egoera, beraz, ezinaren aurrekoa zen, azkentzearen muga-mugan.

Eta laugarrenean, Osinagako andere Ignacia dugu. Honek ez zekien euskaraz, ez tuitik ere ulertzen, kantu xume batzuen apurrak eman zizkigun arren.

Litekeena da azken bi berriemaile horiei bilduriko testuak garrantzirik gabekoak izatea hizkuntzalaritzaren aldetik, baina aipatu denboran ibar horretan kausitu genuen egoeraren tamala aditzera ematen dutenez, hona ekartzea deliberatu dugu, egoera horren berri ahalik zehatzena emateko.

5. BEORBURU

5.1. Esteban Garbisu Aranguren

Herriko berri, eskola garaia eta kanpotarren etorrera (1981)

Aittá? aità Beorburukuá? ta amá... tarté ori... Uèrte Arakílgöa.

– Eta, zu haur zinelarik, Beorburun, hurrek egiten zuten euskaraz?

Bá-bai, bai. Bai e... Beorbúru? pues e... geièn-geienák? euskéra, famíli bét edo béstze, amábi famíli gíñi-, giñén ta...

– Zenbat familia?

Amábi famílie denbor ártan, ta bíde edo láu zirén erdaldunek; géro apéza, Otsa(g) árko semía etòrri zén? t'oré're... erdéraz àitzen tzén, etzákien bâtre, aitetámak... euskaldunek zittuén biño... berák estudióak... in? te, etzuén eztá... íz bet eré... euskéraz íten. Ta geró? Ñuñé eskolára... yóan giñén, ta? an, dénnak érderaz, dénak érderaz. Ñuñén... án tzirén denák... béttitík etórriek, ángo... sémiak eta alábak, euskéraz àitzen tzíren, biñó? ezkóntzetík, Érre-... Erribèratík? ekàr zittutén... gizónak, eta kláro! géro, gáldu zén an², ta bétí erdéraz àitzen giñén ta, irrí bertzeík étzi-...gutén itén? bèrtze guziék? eta, ps! bàakizú, betí... uztén-uztén así? te, ordúzkeróztík así zén galtzén-galtzén ta óla.

– Eta, beheitiko herrietakoek egiten zuten euskaraz? Nuin eta Larraiozkoak eta horiek?

Angó sémiak zienák bai, bàño... betí ez; errátaizút, bèttitík etórriek baizíren, bazirén... Ñuñén bazirén... lau, láu itxétan, beittítèk etórriek, eta oyék erdaldúnek!... Ta, ps! bàakizú, e... náiz makómeak... euskéras aítú, betí erdá-... semía i(b)ilte betí, erderáz ta, eskóla án baizén? maèstru ét e, izèten tzén? an bìzi zen-tá, arrék ere bétí erderáz ta, apèza iguál? erderáz? eúskeraz ètzen aitzén? ta kláro! badákizu, orí... izéndu dé fùndamentúe angó... euskéra gáltzea.

– Eta, erraten duzunean beheititik etortzen zirenak...

Bai, ezkóntzera! atràtzen tzíren...

– Nongoak erran nahi duzu? Iruñe aldekoak eta...

Eeez! ez, ez, béittiaoköák, e! nekazárien ítxan, ba(k)itzú, bakízu pues, iguál áidiak edo izéten tzittutén ta denbóra artán, relazióa, ob(e)renían pues, bákizú te... ásten tziré ta, bétí beittíkuak tzirén, bazirén... Alkótx, bazén... Juankoréna, bei-, dénak beittiköak, bertzóat... Etxeberria, bértzóat Martxoréna, dénak, nausiek, ándik etórriek, onára ezkónduek. Eta kláro! aiék? erdéraz, etzákiten ézta... íz bet eré! emakómea pái, aièn emakómiak, biño? bákizu, pues... apéza, ta máixtrue, èrdaldúnek? psss! an... etzén, eztá, eztá... née denbórakuák etzutén, eztá itz bét ere... erdéra, o euskéras... mintzétzen.

– Eta, erran dituzun horiek, Alkozko eta nongo beste herritarrak ziren?

Pues... béittiköak, orái eztákit denbóra ortán... batzúk zéren, ¡coñe!... Áibar ta, geró? onátago're, badíre bai, errí betzúk. Kágoezdiéz! orái, sierra Itzága, onátago... enáiz oróitzen orái.

– Bai, urrutiko herri horietakoak, herri erdaldun horietakoak...

Kláro! Iruñeték? pues-pues, iguál... psss! ze, zér da? berrogèitamár kilómetro edo béittiköa o, bétí, béittiköak, bétí erdaldúnek, bétire.

2 Elkarriketa guztiak Atezko Zigandan bildu genituen, han bizi izan baitzen berriemailea ezkonduz geroztik.

– Orduan, zenbat euskaldun ezagutu duzu Txulapainen? Horko bereko lagunak...
Ixìn duzú... Otsakárren, izìn³ duzú bat... emakóme at, Etxeberríkōa; eztáit nóla...
duén izéna, bèño...

– Bertakoa da, hor berean sortua?
Ez, ez; orí Arráiztik onára etorríe edo.

– A, orduan ez da txulapaindarra...

Ez-ez, ez, Txulaparrían edo...

– Eta, Txulapainen sorturik?

Ummm, eztaít! eztaít izín, eztaít, eztaít izin dén, ummm... bádiré biño, biño erdaldúnek,
àn sortúek bai, orrèn senarrá? pues-pues e... ór sortue dá, ta gañerá, orrén... áitten anáie,
izèndu zén gúre... gúre erríen apéza; biñó? eztá, eztá iz bét ere... étzuen... euskéraz ítten;
bétí, déna erderá! ta bakizú? amá... zun arrék, orrék... Barránka. Kàgoendíez! orái...

– Uharte-Arakil edo?

Ez, onatágo, onatáo.

– Ihabar? Hiriberri? Zuhatzu? Ekai? Satrustegi? Egiarreta? Urritzola... Izurdiaga,
Aizkorbe, Irurtzun...

Ez! aátago, ez, atáo, Irúrtzundik aráta... Yábar! Yábarkōa, bai. T'orrén... ánei bét?
e... izèndu dé San Migelén? ogéi urtez berén án, án eon tzén pàrrokoá!... ta, bákizu,
pues... e etxión, etzúten eztá, aitètamá? euskaldúnek eta... sémiak eztá, eztá?... iz bét eré
ez, eniotén ba... ez íttxan geldítu zirénak? ez... ez... kanpòra yoanák? béiñ ere íz bet...
eúskeras áitzen; entèndátú iñen zutén? bèño... mintzétzen ez.

Inguruko herrixka batzuk mintzagai (1981)

– Ezagutu nuen andre euskaldun bat Usin...

Bai, orái ílle izen biar dú.

– Sanferminetan, bai, Urbana; adin handitan hil zen...

Bai, errí ontán eré bizí... izèndu zén orí.

– Bai? Herri honetan?

Ba-ba-ba-bai, bai.

– Nik Gaskuen bizitzen egon zela badakit...

Bai, emén eré báí, eméndi Kaskúre yoan náí izendu zué, Gas-, Gaskútik, ára.

– Horrek bazituen laurogeita hamaika urte edo...

Eztakít ziúr biño, badí... óla zeait.

– Tira, ez dakit zuek laurogei edo lauetan hoge erraten duzen...

Bai-bai-bai, bai, bai... ála éta-ta, bai.

– Nola erraten duzue?

Láuetanogéi, ya... esátagú.

– Atzo egon nintzen Aristregín, galdezka, ea herrian euskaldunen bat ote den, eta erran
zidaten badela gizon bat, orain Aldaban bizi dena: Ezequiel Villanueva; ezagutzen duzu?

Bai.

– Horrek badaki euskara?

(Erantzunik ez).

3 'Izanen' da hori, *izaen* > *izain* batetik iritsia, antza denez.

– Ez dakizu ba ote dakien? Hara joan eta bi emakume atera dira atarira, gizonaren ilobak...

Ba-ba-bai, orí... soltéroa é, izén bier dú.

– Bai, gizona ez omen zegoen ongi eta ez dut ikusi. Bietako bat barnera sartu, osabari euskaraz badakien galdetu, eta «Ba! pixka bat» eta «atze duela» eta ez dakit zer, baina ez didate berarekin egoteko aukerarik eman; ez dakit, beraz, badakien edo...

Bai, biño or(r)ék, orrék, Aristrégiko sémia dá biño, orrék Aldabán eáma battú... iguál ník ttutén úrtèak, úrtés.

– Gazte-gazterik hara ezkondu, edo?

Bai, ez... or, izédu zuén... arréba, or ezkóndue ta, il... senárta íl zai... zaikió, tá kláro! ordúen? yoan tzén ará, kláro! lanerá? lan íttea, ta bétí, soltéro bízi... bízi e. Ba! pues-pues ze! ní biño áunitzéz... pues, lauétanogéite àmar urté... ezpáttu'ré? urbíll izein díttú, bai.

– Bai, hala erran dute, lauétanogei eta hamar egingo ote dituen.

Bai, nõnbait án izéin de, izèin ttu badú, bá-bai... ezáutzaut bá-bai. Géro, Osiñágan eré, eztúzu izéin? es...-kaldúnik?... mmm, zebáitt izéin du... yakín? eztáit ez, éz-ez. Larraiótzen... Ñuñén izéin duzú euskalduná? bëño eztá... ángo sémëa.

– Bai, Nuín [abizeneko] bat, ezta?

Ba, Nuín du àpellidúá.

– Udabekoa edo, e?

Bái-bai.

– Bai, egon nintzen berarekin egun batez, baina bere kuñadoak pixka bat entenditzen du behintzat.

Eeee... bai, amá? arrék? orrék amá Saldísköä... zúen.

– Bai, Aranda...

Aranda, ba: Fermín Aranda.

– Baina, mintzatu, mintzatu ez. Pixka bat konprenitzen zuela, baina ez zen mintzatu.

Ói-oi-ói! erréserbatúe izédu de betí, ái-ai-ai! Pues áma, euskáldune, erdáraz etzakín bátre órren ama(k); Saldísköa ze(n). Eta géro? Etxeberrían eré izèin duzú? neré adí-, adiñeköá? nèxkazar bát... biñò-biñó? àrrek eré... amák bai, amák bazakin euskeráz piño... bérak éztakit, mìntzetú den. Ta géro bértze famílie át? ta-ta, aiék... bátre. Larraiótzen, izèin duzú... bat, Andrés... Baráibar.

– Horrek egiten du?

Orrék bai, Beuntzéko sémia da.

– A! Beuntzekoa, baina hori ya bertze ballekoa da.

Ta áabé (?) eròsi zúten? ta... bëra, andría beíz du, Gaskúköa. Ya, ítz berdíne men dáudenz eta, berá? Gaskúre, ezkòndu zén orí? espòsatu zén? ta, or ítza errè zaèkiótén? ta geró, eròsi zutén an ítza... Larràiozén? t'an bìzi diré. Oiék, biék, senárta-maztiák, ní biño gàztexeaoköá(k) tiré, oiék iruètanoéite bórtz eo séi o... úrte eo olá izéin ttute. Géro, orái duéla... urté bat eo óla íl tze, makúme at eré? or é, Ñuíngo alába zén, arré pazakién, aitté... euskáldune zuén ta, bazakién biño íl tzen. Òllakarizkétan izéin duzú akáso Gregoria Larunbe; arrék... yakínen dú zebaitt.

– Oso zaharra da?

Ní beñó zárragorík; orrék izein ttú... iruètanoéite... amabórtz urte; ník biño bórtz... úrte geigó izéin ttu beti.

– Eta, bertakoa da? Han berean sortua?

Ez, Nuiñén sórtua.

– Tira, Txulapainen beti ere.

Bai, bai, Txulapáñen, bai, Txulapáñe.

– *Txulapain* erraten duzue?

Bai, bai, Txulapáin, éuskeraz.

– Eta, Txulapaingoak zer zarete, txulapaindarrak edo?

Bai, bai, bai.

– Untzun ere bada andre bat, pixka bat entenditzen duena: Bernardina Gindano. Ezagutzen duzu? lauetanogei eta zortzi urtekoa-edo; duela denbora guti senarra hil zaiona...

Úntzun?... a! bai, béra tzén, orí [...], biño senarrá, eztáit entzún nor... ìzen dáiken.

– Andre horretaz behin esan zidaten, bere gazte-denboran, alorreko lanetan osaba euskaldun batekin ibilia zenez, euskara pixka bat ikasi zuela. Orain dela gutxi, baina, beragana joan eta ia ezer ez zekiela konturatu nintzen.

Ba! ník eré... bája aundítz, urtétik urtéra... záu-, záun dut, te yá...

Bizimodu gogorra (1981)

Gañera gú, gázte denboreán... óso, lán aundíz te, óso... bízi... óso...

– Gehiegi, gogorregia edo...

Pse! gòizetán yekí te... pastílle bat... txokoláte artúte, ogíe te artúte, denbóra artán iguál, eúria biar zuén òianerá? ta... dènbor óna batzeón... lanerá edo láierá edo altzúrkatú te... éz giñen béiñ ere...

– Geldirik egoten?

Éz geldík egoten. Psss... lána, psss... béti... errékan bát garbíttu edo betí oláko lan... dírué etzén, òrtik ez giñuén bátre ikusí biar biño án, dènbor artán? ói-oi-oi! idiéi tte bèieí? edérki... yátea mán? ta, edérki zepíllu at pastú? orbelákin... ázpiak edérki patú? te, psss, obenián, izèndu giñuén urté, ùrte batzúz? pues... ez giñuén gári áski... bíltzen... ogíe iatéko ùrte guzién? ta, klaró! máize pixkuát eré eràitzen giñuén? ta orduén? oré... beòrrakí edo mándoaki eamán? erròtará? ta án... ín ta, tórta iàten giñuén? geró urdá...

– Zer egiten zenuten?

Tortá? máize... maizé igo! denbòra artán, bakizú? pues... errí oketán bazíren... erró-tak! bazúte ta, ajá! artàik yán artoá? ta, puah! ala'ré, kónten bizi giñén, ez giñuén bértze... gáuze, bátre ikústén? te. Ní serbizioóra yoan nitzéleik? e, eztaítt irú'do láu bidéje egíñ ote nittuén Irúñea... psss! ta bákizu, béti olá!

– Eta, serbizioa non egin zenuen?

Bitórien.

– Eta, errotara joatean, zer egiten zen han?

Pues... ze? ordún tzién erròta batzúk? émen ere, errí... geínetan! óri... denák? ugeldé zittutén errién? dénák bázittuten erroták, dénák... àrri betzúk? ta án... ió?

– Zer ehotzen zen?

Maíze! maíze, maíze, bai.

– Bai, baina nola erraten zaio maizaren zerari, pikorrari?

Pues, maíze, maíze, máize erràten diogú, béti.

– Baina *al grano*, nola erraten zaio?

¿Al grano? pues-pues maízä! maíza, bai.

Eultziaz zerbait (1981)

– Eultzia egiten zen?

Bai, bai... ói-oi-ói, pse!

– Eta, nola, nola egiten zen?

Pues... idiekí? e...-karrí, karroán, ekarrí? te geró, larrañén...

– Baina, larrainera ekarri aurretik zer egin behar zen?

Zer? pues egíte!...

– Egite?

Bai, klaró, eitékí? pues déna, ebàki olá? ta, maltzáka-maltzáka tá? patú geró, espàrtzuekí? do, ezperén... izèten tzèn... orí? itséskiek et-etá in giñuéla? iñík? eta... aiekí? lótu, te déna lotú-tzen tzeolík? geró, ultzién así.

– Ultzi?

Últzien así, ‘últzi’ erráten giñuén... ultzítzen! ta beorrakí te... ìdiekí? bueltàka-buel-taká? déna, e... pikórtu te geró... aótza... xéa, or gíxëa atea ártio? ibiltzen giñe bueltaká, geró... orè bíldú? zarrèakí? –‘rastrillo’ erráten diogú orrei, zarréak, erráten giñuén... denbóra artan; orí euskéra–, ta geró? aizátú! aizètu déna. Pakízu ze lána? ói-oi-oi-oi... dènbór ártan! Jésus!...

– Eta, haizatu ta gero, zer?

Geró? pues-pues aotzá... sabaierá? ta... pìkorrá?... pues granérorá.

– Eta, beste zera horri nola erraten zaio? Mandoak zer eramaten du?

Kollaróna! bai... kollaróna; ta geró... gèro kuèrda batzúk? geró estrásie? atzetík?...

– Eta, kollarona zer da?

Kollaróna? lepúan jàrtzen tzaió!... bai; gerò bíe-, bíar da áik... kuèrda baterá? ta, arrék, géro... itxíki... óri e... estrási(i)? te tíra! Kláro, izète mén... bazirén biórta edo zaldíe fuérte samarrák? pues estrásien gañéan ibiltzen tziñe(n), bañó? obèrenían... debíl samarrák edo zittutén? ta orduén, óñez ibíl... biar tziñén? [...], buéltaka-buéltaka-buèltaká? séi o zòrtzi ordúz? buéltaka. Geró, bigöakí, buélta eamán? ta...

– Eta, larraina prestatu behar zen hori egin aurretik?

Bai, bai; orí? pues... betí? zulúak eta izèten tzíren, ta oiék... àltzurréki... edérki... nibéldu! ta geró, muñéga, erráten giñion... or, arrí tartién, béiek eta bíltzen giñuén? kàka oietáik? e... mònton bát? eta, uré ta... arràsta batéki? buéltaka-buéltaka-buéltaká? orr é... edérki nibèletú? te, èun bétes, bíar, egún bet biar tzuén oré sekatzekó? te urrèn egu-netík? àsten giñén ultzién? ta ála!

Eskolarainoko ibilera luzeak (1981)

– Eskola denboran, Beorburun bertan izaten zenuten eskola?

Ez! Nuiñe ya; Nuiñe... biltzen giñen: Beorburu, Osakar, Osiñäga, Arístregi te Larraioz.

– Eta, jetsi eta igo? Nola erraten duzue *bajar y subir*?

Pues... jetxi!

– Eta, *igan* edo *igo*, nola erraten?

E? io... io⁴.

4 Beste une batean ere *io* bera erabili zuen: *io dá desbánerà*.

– Hori nola egiten zenuten?

Eee! oñez! oñez, bu! oi-oi-oi, ba!

– Zenbat denbora behar zenuten joateko?

Ba! uri eztagit, ordu erdion bat edo gexago, gostatuko zaizkigu(n), oso malda zen, xenda bat bazen an.

– Nuinen gelditzen zineten bazkaltzen?

Nuiñen, klaro! an bada, artu zorrana... artu? te an... para, zebait pss, bakizu! urdei puskon bat edo ola, bat, tokatuko ziguten? te, ordun? e... uzten giñuen itxe batëan? ta, etxe artan? psss, ya... eguerdien ateatzen giñelik? ordu bet edo, ordu t'erdí... pasatzen mintzatzen, bazkaldu te tira eskolara.

– Eta, arratsaldean, eskola bukatuta, berriz etxera...

Itxera, klaro! ya lauetan edo ola? buelta artuta, bakizu, itxera denak.

– Bakoitza bere herrira...

Klaro! bai biño, tal como Aristegi're? gostatuko zaikioten aise... ordu t'erdí edo bi ordu're bai, seguru aski; beti... aparte baitao ta, buelta, apenas baitzen ez karreterik ez, e... beti, xenda tzar bat zutena, sasi te, dena loia bertzeik! belaunetaraño loies, loien sartuik ibiltzen baigiñe!

Zerri-hiltzea (1981)

– Kontatzen ahal duzu nola egiten den matatxerria?

Be! pues tzerriéí, lemíxko, àrtzen deú gántxo at, bat, bai? kokóz bétik, oré, e... arrék, artzén da. Geró, bertzé laun beték, belàrrietík, àrtzen du. Te geró? besóa, ta... ánka... eskér(r)eko aldetík? pues, ta botàtzen dá máien gañera. Órduen? pues, matatzérriek artzén du... óri? te, bertzé...

Geienétan? pues, makùme baték ártu... bañéra, ta... odòl artzekó? geró, sàrtzen dió... orí? e... kànabitá.

– Nondik?

Nóndik? lépo... azpítik, ta... klaró! geró odòla artzen tzaíó? ta geró, e... irétzëa da... óri... zímiltzékó, ílla erretzekó? pues... gauzík e, oberéna, óri ya sartzén da, bíño ob(e) réna e... errí aunítzetán eztá... irétzeki izéten, ordúen aótzak. Biño irétzëa da obéa tzímeltzekó, e... aótzak [baino]; ta geró, zimèltzen deleík? pues... ateátzen tzaíkio, pss...

Geró... garbítu, edérki, eskuáki te télle píxkuatekí, e... déna... belz-béltza gelditzén da! déna... aütse duéla, ta ordúen, ùre botá? ta... óri... télle... báteki. E... laún beteki, ta bertxëák, kànabitakí? pues... e(e)rkí aféittātu, aféitte...-tzén bezéla, garbítu!... zú bezela, ederkí? ta géro báakizu: trípek, atrá? e... zúbáiñ orí... txérrie, kanabíta sártu zitzaíon⁵ lekutík, atzéraño, déna... edikí? te geró, klaró! geró... leník gibéla! klaró, kéndu? ta... géro ésteak eta denák atéra, ta geró bañéra edo... ésmolta edó, bértze katxárró bateá; artú te, geró? puesss... garbítu... píxkuát? eta geró, zilíntzen paatú, sekátzeko, tzerrié? e... burús béitti, zéetik... e... búruen, béti, odolá geldítzen tzaío.

5 Berriemaileak, P. Yrizarrentzako datuak bildu genizkionean, *zakion*, *zaikion* erabili zuen.

Geóz? e... lenáo, betí patzen giñuén... búrus gó(i)tti, biñó? betí odolá béiti-béiti yoáten da, beño burús béitti pàtzen baduzú? pues yá, pernilék eta... déna, óso, àunitzekí zuriágoa atéatzen da; urdaie... osó, óso... garbíago, batre... odóli kábe, ezpéren? e... odóla? búrus góitti pàtzen baduzú? odolá yoaten dá ta, barrátzen dá... déna baná ta eztá? biño burús béitti pátueskeró, pues... ya, odóla... zébaitt, eskápatzen dá betí lurreá eta, obekí ateátzen da.

Ta geró? bádakizú, pues, orrí? psss... e... lenáo, góizian... íltzen tzén tzérrie ta géro, artsáldëan partíttu, bíño orái... gauérago; ya, e... gaués ederkí serenátzen dá ta, urrën goizeán? pues... partíttu. Ta, géro? e... baákizu, pues... lénao emákömiák, éstëak edo orí, tripek, garbítzen zittute, biñó, óso [...] tzárra da, ta tzérrie aundíe badá, pues géro, txistórra eitteko ta, sóbra... sóbra lodí etórtzen diré estíak eta óri.

T'órai... tripék, bóta itte ttuté ta; eròstauté... Iruñen, néurrikóak, ta, nái bauté... klaró! ón batzú? o... o miárragokóak edo olá, estíak eta, prestátze ittuté. Ta, géro... etzúr oiék eta, geró? an, pues sekátzean? pàtzen ttúu? te klaró! pues, onútx? pss... por ejemplo, tírak, erràten zé-, zèietzénak? óiei? ezúrrik éz zutén oiék? pues óiei... iru-láu eúnes, gátzian idukí? te ín gatzátu, biño zerbáit ttuténak, tal-tal como pernilék eta oiék? pas-taute yá, iguál... éztaki(t), iguál illebéte bát edo... ogéitte láu oéite bó(r)tz [egun].

– Eta, gero, txorizo-klase batzuk egiten dira?

Bai, pues... txistórra? ta, geró... zeá, nóla esáten da?

– Txorizo, lukainka eta...

Biríke, biríke orí... izén da sabeléki te... ba! betíre...

– Ez da hain ona?

Bai... ez! sí, óri... egósik, yáteko orái, ya áunitzek eztúte izetén beño, oráñik... konsér-batu dá, béti ittéu.

– Eta, denetan onena zein da? Txorizoa, txistorra, edo...

Txorizoa, txorizoa, bai. Ba! txorizoa ya... gútti ítten da, déna... bákizú, txorizoa ittéko pues yá, txistórra, óso gí(t)zéna, suéltoa, ítten da. Geós? déna... mágroa biar báitu, txorízo ittéko. Mágroa kéntzen badiózú txistórra eztá aiñ óna atéatzen, déna gí(t) zéna izéten da tá, eztú gústóik; orái yendéak, pues txorizoa guzia badú, pues, eróstau Iruñen ta, beño... txorizoa eztú(u), txistórra itten dá ta, orí... magró fránko baitagó lenáo biño obekí, txistórra bezánbat txorizoa, bakitzú, Iruñeko txorizoa biño obiá zu? zétako?

– Eta, txerria hiltzean, bada ohiturarik iluntzean afari bat egin eta...?

Lénao báí, beño orái...

– Orain ez?

Ez! ézta yéndeik orái! érrí oketán benpiñ, éztakit orai yá, errí aundítxo... oietaík? lenáo pues, e... tripóta, erràten bairtúu? pues, odolakí tte... ittén zituté tripòtakí, itxé guziètará? partítzen tze; bíño orai yá, kostúnbre oiék, tripòtak, ze, óla? pues eztá tripòtik kasi ittén. Óso bizióso... ya... éztuu, gáuzá oiék eztá, éztuté...

– Kanibeta sartzean, zerriak zer egiten du?

Ba! pues... según, óngi aztátzen bazaió... aúdo iltzen dá beño, zènbait áldiz, iguál, iguál pues... tardátzen dú? ezpàdiozú óngi aztatzén? mataletxónak ezpádu óngi aztátzen? pues, iguál pasten dú òrdu kuárto at e... murrúxk itén ta... óso... peligróso dá! T'orduén? ói-oi-ói! eskápatzen dá? badá?... arpátzen duenaí, ózkía... fuérte ittén du!

– Eskapatzen da inoiz edo behin?

E báí! ba!... ézta normál eskapatzéa biño, suértatu dé eskápatzéa.

- Nola erran duzu? Marruxka?
Murrúxke, murrúxke.
- Hori zer da? *Gritar, gruñir?*
Bái-bai, olá esáten diogu gúk, ólaxe. Mira, ozk ittén dik, néri...
– Bai, e?
Bai, izéin ttu, ogéitte... amabórtz úrte berèn tta, àzkal áu? betí? gáixo, èmen daó, betí...
- Matatxerrian edo bestela?
Matátxerrian, bai.
- Oroitzapena, e?
Bai.
- Hala erraten da, *recuerdo?*
Bai.

Korpus eguneko prozesioa (1981)

- Korpus egunean prozesiorik egiten zen?
Orduen bai.
- Kontatuko duzu nola egiten zen? Botatzen zen zerbait karrikak edertzeko edo?
Bai, tzunkek.
- Non biltzen ziren?
Aiek? oianean, izeten dere iturriek eta ola... oianean, ta oien inguruen atratzen dee, dere txunkek erraten diogu; ta aiek e... aieki, gimuztu⁶ te, karretera, elkarkin... botzen ginittun? ta an itten giñittuen paxuek. Bai, egote... leku guzietan, e?
- Eta, prozesioa nola egiten zen?
Pues... ori? gurutzia ta gero, apeza... bere... kalizeki? bueltan ateatzen da.
- Edo kustodiarekin?
Kustodiareki? te, gero ya...
- Zerbaiten azpian? palioa-edo?
Palioan, palioan azpien.
- Palioa nork eramaten zuen?
Pues, erriko... beziñoak.
- Eta, bidean jartzen zen aldareren bat-edo?
Bide erdien... patzen tzuten olon bat, (e)tzakit e... altaretton bat. Zenbaitt urtes bai, nere, ni gazte-gaztea nitzeleik? ez, biño gero, ondorian? patu izendu ze.
- Eta, han gelditu egiten zen?
Eun batan orazion bat in te... gero seitzen giñun.
- Hori zen guztia?
Ba! bai, denbor artan? pss, meza ta... rosarioa? oi-oi-oi! etze, etzuen iñok ere... ezta, uzten ezta-ezta, oi-oi-oi!...
- Guztiak joaten ziren?
Ui-ui!... seguro!

6 ‘Bihurritu, bihurkatu’ ote da hori?

Ogi egiten (1981)

– Egin izan duzue ogirik etxean? labea izan duzue?

Bai, bai, emen ere [Zigandan] izen duu.

– Eta, nola, nola egiten da? Hasieratik kontaturik...

Ba! pues... orantza in biar duu bezperatik; itten tzen? tal como, zortzi eguntik edo ola itten tzen ogie. Gero? andik, artaik? masadatik, itten tzen orantza; uzten tzen?... masa pixkuat, ola... plater batian, ta zortzi egunes min-miñe patzen zen ore? ta areki? bezperatik? orantzai? tal como... arratseko... zortzietan edo ola? ta bier, goizeko seietan, ¡hala! orantza arrei, ure ta, ure... epela, ta iriñe bota? ta an bueltaka-bueltaka-bueltaka? ta gero... bañera batian? majo bildu ore? masa guzie? ta gero azten tzen ore.

Ta gero, andik, ordu t'ardi... inguruen edo ola? dena, oiek... ebaki, moztu? te, oiekin? te, gero, palaki, orduko labea ederki... berotuik? eta, palaki sartu? t'andi... an, ordubete edo, ordu... t'ardi iduki? te, gero palaki beís atea? ta, zortzi egunteko ogiek. Ala izeten tze.

– Orantza 'levadura' da, ez?

Levadura da ori! levadura; pero, orai izeten da levadura artificial, biño orduen tzen normal; masa batetik, bezperako guardatu, t'ori min-miñe patzen tzen ya, ori zen orantza. Ta, arrei, ore gabe, etziaiken ogie iñ e baña, arek, arek azten tzizun, ta uekue edo... arek, patzen tzun? masa.

– Masa orantzaz goratzen da, ez?

Bai; ori? masa esaten giñun guk, orantza ez giñioten deitzen ya; masa itten giñuen? porque tal como... eztait, pues-pues, izeten tzen... maiak? pues, ola, kajon bat? eta, an, pues, taka-taka-taka-tak, taka-taka-taka, ola... bi egunian, ez giñuen ezer za(n)patu? te gero, bildu or, gero, maind(d)ere batian, ederki... bildu? te... biño etzen oztiar batere, e... negun te ola? leku... ori, leku... oz samarra balin betzen? pues, azpien patu... brase-ro edo... olako zeait? eta, gero? azten tzen ore? to, klaro! masa... buelta batzu ta patze giñu? ta, olatxe batie, uz-, uztekatzen giñuen masa? gero? pues, ore... doble beño geigo, itten tzen, bero... bero areki.

Ta gero? pues bakizu, pues, partittu? te... ogie? itten, sartu labian? lekue prestatiar tzun! labëa... orduen, ipurueki⁷... berotzen giñu, ta orduen? pues ya, zuri-zurie patzen tzeleik... goittiköa? edo orain or, espera. Mmm... dena ore esko... esko ateki te... garbit(t)u? te, an sartu ogie..

– Esku batekin?

E! eskuaki, esku at? e... eskob'at? esaten diogun...-na? pues artu, te... iraut-ten du, biar tziñuen? pues, aga bat biar tzun, luzëa, ezperen eziñ neiken sartu, biño garbitzeko? garbitu ore, dena? ta gero... aga batekin? pues, gero palaki sartu; ori eta, zortzi, beatzi, amar egunteko ogiek, nik. Ta geio eztagit.

Hitzen esanahiaz (1981)

Mira, nik espliketiarzut gauze bat: e... Gaskutik yoan tzen Beorburure, e, ori... famili et, ta bat zen, t'oiek ziren... kanteröak. Bueno, aien? ta, nere aittek erran tziun: «Bueno,

7 Gazt. *enebro dela-eta, ipúrue, castellano orréa* esan zuen berriemaileak halako batean.

leio au... txiki samarra dauket eta ezta ongi, ezta grazia agaien⁸... leio au aundixago in biau». Ta klaro, pues, yoan tzen ara? ta, psss... te, klaro! pues, nee... gizona're? baze, nere... adiñeko mutíko at. Pues, «Ai, ortik sentitt'ittut». «Nik ere bai».

Bueno, pues... geratzen te gero? klaro! etzeake, etzen alleatzen? goitire? ta, «Tiruri!... katzu matxardäa!». Bo! matxardea? tze ote da?⁹ Ta, nik oraño? aunditzeki obeki nakiñ nik orduen... euskeras ëtz egin, beti... euskeras aitzen giñen itxan ta, ola, oso... «Eztizut erran, matxardea kartzeko?», biño, «Zer da matxardea?» esan nu. «Ori, gizona! oratz dezulu!». Ta maietan, beti, onei maia¹⁰ dei in nion nek? bakizu, bost kilometro igual, ezte iz(e)in Gaskutik Biorburure ta; onei maia.

– Eta, haiek...

Matxardäa! matxardea. Zer da? 'maia' da edo 'matxardea'?

– Batzuetan, horrelako hitz diferenteak agertzen dira...

Nere amak esaten zitzen, bein, emen bazen bezte... aizpe emen, Iriberrin, exkondue ortatik. Ta klaro! andik? torri, bezte aita, gaiz-, gazteagokoa edo zen? ta, orai Ireberrie etorri? te, ele bera, «Ba! emen, itxe ontan? alabearres, baitute 'basoa', ba eztakit, beti de basoa». Famili guzie, ta biek euskaldunek? ta, ta koñatak erraten du: «Zer da basoa?». «Ze in biar? pues ori!», ta, klaro, zer da? ze, itzena? 'oiana' o 'basoa'? klaro, an, Uärten beti... 'basoa' esaten diote inguru orretan; emen beix? beti 'oiana', zergatik? pues, orai... psss, orai eskual-, eskuera pues beti... izein dee... biño, denbor'artan? psss e! orai ere? ni juntetzen banaiz... oañik, gipuzkuanuai? entendatzaut peño, ze? bilbaino ateki... juntetzen bada? edo bixkaino ateki? ni eztut, jeee! itzik ere kasik, entendatzen?

– Bai, diferente xamarra da, denbora pixka bat behar da ohituz joateko...

Klaro, klaro, ezta... posible.

– Baina, bat-batean gogor egiten da euskara hori...

Bai, gañera... oso zaloi aitzen dire, oso prixeke... mintzatzen dire, gu biño... Oañik? gipuzkuanöa peti, gu bezela, despazioxago, aitzen tzate mintzatzen biño, oño! bixkai-tarrak... geienak prixeke; nik, e... denbora batian, Irurtzunen, ferie...-tera tortzen tzi-ren? andik eta... ya, gaizki ibiltzen giñen, aiei entendatzeko.

Irurtzungo feriaz zerbait (1981)

– Beraz, Irurtzungo feriara ere joaten zinen. Denbora batez aski famatua zen, ezta?

Oi! Irurtzun? ¡ya lo creo! oi-oi-oi, ba-bai.

– Zer eramaten zen hara saltzeko?

Pues... idiek, beiek, tzeorrak, tzerri...-kumiak, ta... aunteon bat eta... aunteon batzuk? eta gero... ardiek ere bai. Ta gero, tiendas? pues, kanpotatik tiendak tor-, etortzen tzien? ta, dena... mintzatzen an, oi-oi-oi!... Irurtzunen, bai; karriken öla... Iruñen sarfermintten bezala, karri [...], denak zapetaki, eta... de puro ibiltzen tzen yendea. Biño? etzeen denborak olakoxe. Igual, beee! igual sei automobil, izein, Irurtzun, ferie osue denboran.

8 *agarian* < *agerian*, antza.

9 Zuhaitzetara igotzeko edo adarrei eusteko eskailera-mota bat.

10 Baldin berriemailea honen aurreko oharrean aipatu ustezko eskaileraz ari bazen, oraingoan *mail(l)etan*, *mail(l)a* ahoskatzea itzarotekoa zatekeen, berak (bere belaualdiko jendeak bezala, oro har) *l* bustia ongi ahoskatzen zuela kontuan izanik.

– Tratanteak urrutiko herrietatik etortzen ziren?

Bai! ui-ui-ui... orduen? Irurtzune? pues, tortzen tzire Frantzietik ere, ta... Gipuzkua-
tik? auniz, ta Bitoretik ere bai! zautzen nittuen denbora artan nik trantantiak e... ui-ui!

– Eta, Sakana guztitik ere bai? Etxarritik eta...

Oi-oi! klaro! ta, ta Ultzamatik ta, oi-oi-oi!...

– Aziendaz gainera, bazen besterik?

Bai, izeten tziren, an izeten tzien zapetak eta... oietaik ere, tiendaki're bai, bazire(n),
ba! igual pantalonak, dena, arropa ta guzietatik, bai, izeten. «Ze nai zu?» ta, ba! saten
ziun. Sorik... txarlatan aietatik ere ikasi, feri aldian kasi izeten tzen, bakarron bat, beti...
denbora artan; ba, denbora artan, ¡hala! «Nun da paraguasa?» edo... igual? lau milla
(!) pezta, paraguasa ta... be! olako, olako gauza regalatzau, badakizu zenbat [...]. Yende
anitz izeten baitzen, oi-oi-oi!...

Aditzaz zerbait (1981)

– Nola esango zenuke *se me ha caído una manzana?*

Sagar bat bota zaide.

– *¿Se me han caído unas manzanas?*

Bota zaizkire sagar batzuk.

– *¿Ese hombre me ha dado una manzana?*

Gizon orrek man dire sagar bat.

– *¿Ese hombre me ha dado unas manzanas?*

Gizon orrek man... ttire sagar batzuk.

– *Eman dizkide, ¿no?*

No.

– *¿Ese hombre me ha visto?*

Gizon orrek ikusi dire¹¹.

– *¿Se ha caído?*

Gizon ori bota da.

– *Y, ¿esos hombres se han caído?*

Gizon oiek bota dire.

– *Y, ¿se cayeron?*

Gizon oiek bota zire.

– *Ese hombre lo ha dicho.*

Gizonak, orrek? esan du.

– *Esan edo erran?*

Erran du.

– *Erran, ¿más?*

Sí, sí, pero... mira, la madre algo, pero el padre *erran*, y la madre *esan*.

– El padre era de Beorburu; y ¿la madre?

11 Nor-nork saileko nor lehen eta bigarren pertsonak direnean, nor-nori-norkeko era triperpersonalek bipertso-
nal behar luketenak ordezkatzeari ohiko gauza da *hegoaldeko goi-nafarrera* euskalkian, tarteka era egoki
batzuk agerturik ere, garai batean, bai, erabiliak izan ziren seinale.

De Uharte-Arakil.

– Por eso mezcla un poco...

Sí, sí, mezcla e... ¿no te digo? eso... por caso te he querido poner eso del matxarde y... ¡claro!

– Orduan, zuk ezagutu duzu *erran dik*, e?

Ba-bai, bai. Bai, ori... gaztetan, Beorburun? pues e nik banuen... osaba, nee aitten anaie? pues-pues ori, elkarreki eitten ginuen beti, *erran dik* edo... *in zioken* edo... beti, gautze oiek... Oiek, por ejemplo, aitei edo amai? o, ori, respetoz? etzitioten iñen biño, biño laguneki... gure adin yendeki, adiñeko... te yendiaki? bai, *erran dik*, pues ore: lengo aldien erran tzireken? olako? au.

– *Él me lo dijo*, e?

Klaro, gauze oiek; sin embargo al padre? o... betire amai te... ori ez, bein beti amai tte errespetua ta, aidiari tte ola? biño, u!

– Eta, esateko, a uno mayor, *¿yo te lo daré?*

Beorrei, beorrei emain diot.

– Y, ¿a uno como usted? *yo te daré una manzana.*

Nik main dizut.

– Y, ¿si se lo dijera uno a quien trata de esa forma familiar?

Nik main diet.

– *¿Ellos lo suelen decir?*

Oiek esataute.

– Eta, *errataute?*

Errataute... errataute? o... esataute, igual.

– Y, *¿yo lo suelo comprar?*

Nik erost-, erosten dut.

– *Erosten dut* edo *erostaut*, ¿es igual?

Be! tire, erosten dut, e... da nere kostunbrëa.

Harrapatxoriez zerbait (1983)

Eta banda oietara... gëo, jartzen dire... bai, txapelatx erraten diou guk.

– Erdaraz *cernícalo*, ezta?

Eztait, balaike bai; emen, erdi erderas o txapelatx, erraten giñun? ta ala, seitzen dut, nik ere beti. Ori, nik uste... euskera izein de izen ori, ta oiek beis... ‘cuervos’ erraten diou beís, oieí, beleai.

– Eta, *miru* ere bada?

Ba-ba-bai, bai, bai.

– Hori ere bada? Badabil?

Badabille, bai.

– Eta, *hontza* edo? erdaraz *búho* erraten zaiona?

Bakit, izeten da oi e...

– Gauaz, ezta?

Gauetz, bai; uh-uh-uh-uh!...

– Horri nola erraten zaio? hontza?

Ontza erraten diogu guk. Oiek egunez... eztire, gauetz... muitzen dire, eunero eztute batre kusten duik gabe.

Ixeskiak, zitua biltzeko lotailuak (1984)

Gu lanëan aitu? te... lan torpeak itten, tzean ta ola ebiltzen giñen? ta, gure tzorr et ola? pues... goizian, guri abisetu? te... lanea bieli? o yorrara do... gari... ere bakitsera? do... segara? ta gero pues, itxiskie iten, e... pues, ori zapatu? te... itxiskiriken, an... ego-ten tziren, beti, itzelëan? ta... gañian biño betire, gu biño... aisago ju(n).

– Itxeskiak zertarako erabiltzen ziren?

Itxeskiek? pues gero, garie bakitzen giñueleik? ore... pues, lotzeko, garie lotzeko, den-bora artan.

– Paxuak egiteko-edo?

Bai-bai, paxuek, bai-bai; ta... amar itten giñueleik? pues... karga bat, ta ogei? bi karga, ta... ogeitamar? iru karga, ta ola, kontatze ginituen.

– Eta, gero zer beste egiten zen?

Gero? idieki artzen giñin karroakin? te, larrañera ta, larrañen ultziitu...

Abarkak eta beste oinetako batzuk (1984)

Zautu ttut, denak, iltzeaki; iltzeak, kuadratuik? eta, igual irautu zuten urte bat, egu-nero... ibillite. Ta zaut-, zautu dut nik Iruñera, nor yoaten tziren abarkaki, t'Irurtzune... feriera ere bai, abarka oieki, ze... denak tziren... vamos, larruzköak. Ta... gero? oiek utzi in mittuelaik? edo... goma, kubierto-, auto... autoan kubiertoaki gomaskoak asi ziren abarkak eta orduen? oiek galdu zire(n). Ta bortzegiek ere bai, beti, lenao? pues... beti, iltzeaki t'ola, biño... battu urte batzuk ya iltze oiek ta, iltze oik... desaparezitu ziren; 'bortzegiek' erraten giñue orduen.

– Eta, zatak nolakoak ziren edo dira?

Ze, zatak? ba! pues orai... ezta... guk *zata* erraten giñuen oi, ya ori ezta... desaparezi-tuik [...], ezta... igual-igual patzen tuu, bai, laien ta ola pixkuat aitzeko biño, ya oiek...

– Non ibiltzeko?

Laieki y... y baratzen ta... baratzea... pixkuat... arrotzeko, ori, lurre... ta laieki ibil-tzen naiz te, aiek, aieki... otza arrapatzen dut piño ya... ezta, tta!.. zatak, ok, tire zatak.

– Eta, ze diferentzia dago zata eta abarken artean?

Pues oiek tire, dena, abarka ta... zata.

– Gauza bera da?

Bai-bai-bai. Gu, gaztiak giñelaik, yoaten giñen... mezara tzokleaki, ezpartziñek ez... ez zikintzeko, ta bidian dena loie izeten tzen ta, ara... elizera sartzeko, an, uzten gi-ñittuen...

– Atarian?

Bai, eliz-atarien uzte're in giñun? ta, eliz-atarie betetzen... tzen, tzokleaki... elizera, mezara ta bezpetara yoaten giñelik.

Herrikide guztiak artalde txikien jabe (1984)

– Nola erran duzu? Argiñarena una, Agarrea dos?

Dos... Irierte tres, Aguadoren cuatro, Perutxena cinco... cinco vecinos en el pueblo y todos tenían el rebaño, de unos... unos 60, otros 70, otros... 50, ta, ciento... Bost beziño izeten tziren Beorburun, te... bakotxak idukitze zittuen... batzuk... ori...

– Hirurogei? Hiruetanogei?

Iruetanogei? bertze batzuk... berrogeit'amar, bertze atzuk... berrogei, e... bai, berroita zortzi, bertze atzuk eta, eroste zittuten bi urte zittutelaik? eta, gero? urte bat iduki, ta mantenatute... ibilli, mendien ta, beti... gariak bakitzen tzittutelik eta... denak landan, ta gero, urten buruan o ola, bat edo bide iltzen tzaizkioten ta, gaizki ibiltzen men tziren, e... dirue, ultzi zutena, saltzen zittutelik artzeko.

– Eta, aitak zer erraten zuen?

Aitek esaten tzuen, bat, beziño at bazela, ardiék zittuena, ta... denak arrei irri itten aitzen tzirela, zeatik, beti... ardiék, ttikixagoköak izeten tzirela, ta... etzittutela aiñ ongi kasu itten ta arrek, ta arrek... ori, azuriek... azuriek azi? te saldu zittuten ta arrek dirua artzen tzuen ta arrek izeten tzuen dirue ta bertzeek gaizki ibiltzen tziren, pagatuz etzena, urte bat iduki? te... diru ore beíz artzeko.

Lihoaren inguruko lanak (1984)¹²

Liguá erékitzen tzen, ta géro, ártuu... eskuéki te déna e... atéatzén tzen; geró, zanpátu te... sóruan idúkitzen giñuén... bi-íru illebétes, pixkuát... kozkórta-ta sekatzéko ta geró, géro, gárbetan ártu te, ra-rra-rra-rra-rra... dénak, kozkórak, dénak kendú te, múllua e... geldítzen tzén, ta arréki ittén giñuén pues... ittén tzutén, ník eztút... iñ izéndu biño... nére buruíták, e... záutu ittút. Geró artú errókan ta, déna... usoáki táka-táka-táka-táka án, negúen, pues... àitzen tzirén ta, ittén zittutén e... mullúaki, ì(t) en zittutén pues... aríe itten zutén ta geró arréki, itten zittutén pues... zapíñek eta... gáltzak eta... mandárron bat eta, ayé(k), gáuze oyetaík.

– Eta, garba nolakoa da?

Gárba, izèten dá pues, métro át ta... métro t'erdíko o olá, olá batzuk; geró, métro biñó... éztagítt e... berráun, lauètanáun... zentímetro edo, oláko... ténte patú, ténte batzúk? eta án pàtzen zittutén, olá, esàn dizutén bezéla, láuko ol. Géro bí, bí... makílla, bí oól ber(r)íx? beittítik? pues, miarraó ta, emén e... alrebés; emén, por ejemplo, bèittití patuík? oláxe, patú dena, eta eméndik, béitti eon biar zuténa, beix, e... pues... olá; eméndik, áu miarraó? án sartzéko.

Bí uéko izèten zittutén? ta geró, manibelakí? táka, táka... bí eskuekí gorátu? ta táka, táka, t'olá txikitzen tzutén lígöa, ta andík atràtzen tzutén múllue. Géro, múllu arekí? pues... erròkan paatú? te geró ittén zittutén pues... itten zutén aríe.

– Eta, hari horretatik, gero, zer?

Geró? pues e, izén... denborán? izéin tzirén? pues oré... garbítzar tzén aúnez biño, orí? e...

– Atorrak eta?

Atórrak? eta gañerá, gañerá... aúñ, denbòra batián? pues, guatzéko... maindéreak eta... dená? oiétaik ibiltzen zittuzén, itté men zittute.

12 Testu honen lehen erdia-edo aurreko lan batean (Artola, 2014) argitaratu zen.

Kontaera txiki bezain xaloa (1984)

(Gizon batek emazteari): Ta abér, erantzún: «Zé in biáut atór... zár-zárra ta áutsi one-ki?». Ta... andriák? pues, kontèstatu zió? pues...

(Gizona berriro): «Je! atór bat patákit, nóla, nóla... idúkitzen dirézu atór batéki baká-rrik?».

(Emaztea): «Búeh! kejàtzen tzára? soñéan daukéntzun (sic) zárpallea-zàrpallená? bat; eñnen duzitún¹³... berrié? bi, te irugárna ittéko? kaikúen daukét azié... Jainkóak man tzolá, sortzéko grazíe».

(Gaztelaniara itzulia): «Y esa vieja, revieja, que tienes? una; la nueva que te voy a hacer? dos; y pa hacer la tercera, en el kaiku tengo la simiente... ¡que Dios le dé gracia pa nacer! Con tres camisas... ¡y aún te quejas!».

Lihoaren ingurukoak berriro (1984)

El... en eso, a mano, y... ¿luego? guardaban unos, cuando se hacía el trabajo de la trilla, por ejemplo, que era la recolección, pues entonces, a unos... a un terreno que llamábamos allí Larrebéri, que estaba dentro de las piezas y no entraba el ganaõ, allí lo barréaban. Y allí se estaba veinte días o más...

– Erran zazu euskaraz...

Pues, orí? orí... ebáki zituten, ebáki ez, atéa ítten zuten, eskuéki átra; geró? patxúten man, geró zanpátu, geró? e... oré, za(n)pátzen tzélei(k), orí... péntsue kèntzen tzaikiólik? geró, paxuètan ártu? t'eamáten zutén... fuéra, sórora, t'an, barrátu? te... eztákit zénbat eún pàsten zittutén, biño ogéi eún edo... illebéte bát bai. Ordúko? pues... orduén yá, óngi sekàtzen tzélik? zas! artú? te, pàxuetán séko-séko zeolík, itxéra ekàrtzen zuten.

Geró? negúen, e... denbóra txarrakí? pues... gàrbakí? artú? te, déna... garbìtzen tzutén? kaská déna kentzén tzi-, kaxká? e... kaxká, baákizu? gañékõa esàten dá? bétí gañékõa; oiék, orík, ór erdiék, erdién zuén káska, ta, e... kanpókoa? óre geldítzen tze, múllue.

– Eta, gero?

A! artú? te geró itten zutén aríe!... ¡hala! áskuaki (sic) in urá. Orí josí izéndu ze, josí zen geo, josí, berbéra, óla; emàkumeák iguál, je! denbòra artán, iguál iru-láu e...-makúme ítxe bakó...-txetán itze ittén? pues... negúen? iguál, pues... amárretaaño iguál geldítzen zeén? te, dénak erróka artúte, dénak... àri ittén.

Ník ítxan éztut béñ ere... kúsi izándu, ní amá bakarrík zàutua nuén [...], bainuén itxán ta... bákítzú, biño bertzé itxetán izèten tzirén ta ní, psss, óla... óla, arí itten aitzén tzelík? e, ni, nére amák ére etzutén erréparátu te... aríe egíñ izéndue. Kúsi izéndu nún biño, bèrtze itxetán? pues áunitz itten zute, àndre Beníta, ta orduén, amábi famíli baziré? t'orái... erdié? t'orái, ejé!... bí do íru bertzéik eztiré!... ta zebáittetán pastén zutén denborá, an.

– Eta, atorrak eta maindereak norik egiten zituen?

Bàdakizú... denbòra artán? euntzéliak eta àri zíre(n), errietan, ta óiek? ník éztakít, ník eztút oré... kúsi izéndu, biñó...

13 'Dizuten' bide da hori, 'dizudan', alegia.

– Inguruko herrietan batzuk izanen ziren...

Bai, pues... Otsakarrén bazén euntzélia, Markaláñen bazén euntzélia ta ník, éztakit óiek nóla... itten zutén; oík? oiék? aríe báí... ikúsi izen dú, biño geró? orréki, nóla itten zittutén... gèro nóla itt... téla, nóla in zutén? ník, orí, éztakitéla, éztút ikúsi. Aittú bai, «Sártu de euntzélia, oláko... erri etéko euntzélia», ta... oiék? burasták¹⁴ piño ník éztut...

– Eta, horretarako haria eman behar zitzaion, eman behar zaikion...

Kláro, kláro! ní-ni-ník éztakit nolá, pues e... berák, berék inñen zitutén? ta... erràin tziotén: «Bueno-bueno, ník e anbértze... aríe emán tzaitút¹⁵ biño, maindère bát in biárko duzu, edo bíde edo íru do... o atór bat edo... pantalón bat edo...».

– Pantalónak ere egiten zituzten?

Ník aitú izen dú biño éztút kúsi izédu.

Ebakuntza egin ziotenekoa (1984)

Sartu? ba... goizeko amarretan, biño... ja yan gabe; baso at eseneki te esneá artu? goizian, emen, itxan? ara yoan? gero an negonián bestze baso at esne man tzireten? ta... ur ori? Gero, laueta, operazioa in zieten? lau-, lauetaik bostak bittertio? ordu et edo... beix, zebait gaix-, geigo... gostatzen zakion.

Gero, beix, arratsean, beiiix... baso at, esneá? operatzen nue, t'ondorian? ta gaue oso... ddió! keja...-ten tzendiela!... izendu nuen, amabietan edo ola? gustorago! zetako operatu ote naiz ni? ni enun ba, alako miñe ta, sentitzen nun ta, otza gañea! ta, erran nion ba, an tzire enfermerai ta semia ere an tze, semea, zarrena ta, «Ni otzak nao», ta, manta batzu keio kartze zireten ta gero kalmantia man, man tzireten.

Ta gero, ya, iru ortan edo ola, ya... oñazia kentzen tzaikien ta: «Ba! oñaze? miñe bauzu? badakizu, tinbria yo? ta, segidoan torko gara», ta... kalmantea olaxe man tzieten. Urren eunian ere bertze kalmante bat izen, astiartian ya, ta gero eztizute beztze... Gero? mmm... zortzi eun pastu zireleik? edo zortzi eunian? pues ya... puntuek kendu tx-, zireten? ta, itxera.

– Ongi, e?

Ya? tire! oñazeik éztut orai, pixkuat, azi ta lo que es? oañik... zebaitt biño guti.

– Orduan, aski ongi...

E.... bai! konten nago.

– Orain ya ez errejimenik eta ez...

Ez-ez-ez-ez! ja ere.

– Hori ez baita errejimena egiteko modukoa...

Bai, biño... operatu t'ondorian an ere, pues-pues e... seittu eman? tzeatik ardoa ta odol ori, ori ez, ure bertzeik artzen biño, bertze gāñeko... gauzek, pues-pues igual... eun betes igual almondigak, bertze eun betes gisaue, bertze... filetea, ta beti... yan... normal.

14 'Burasoak, gurasoak' bide da hori.

15 Horra, ustekabea, lehengo oin-ohar batean aipagai izaniko era bipertsonal bat, oraingo esaldian txertaturik desegokia gertatzen bada ere.

Ikazkintzaren inguruan (1984)

...-bi urte damazkit¹⁶ nik emen [Zigandan] te, emen eztut kusi; or, Beorburun bai, zaut-, zauz-tu nue, orai duela... berroieit'amar... berroite zortzi edo berrogeit'amar ere... urte zittuelaik baizen, mendi ortan, emen, kara a kara, ori, or, in zittuten lau o bortz, iketza, larrañen iñe bezela, patute an. Bazen ta, klaro! denbora artan, etzen orai bezelako medioik karreterara atratzeko... makilletan in zuten iketzäa.

– Makiletan?

Eez, beri artan, in, iñ ikeztza (sic), ta iketza iñexkeros, armatzeko oso... ezpaizun anbeste lana? pues orgatik biltzen zute, iketza. Sarasa, Fermin Tsarasa, arrek in zittun, iru... iru, lau anaie ikusi nitun, an, iketz itten.

– Nik entendatu dut *makiletan* edo horrelako zerbait.

Nik erran nai dut, karreterara ateatzeko, pues, denbora artan? pues, etzen bidie ta... mandoa pertzeik, eta... denbora artan, guzt-, e... epaite ori... lotea! erostea beño geigo gostatzen tzaizkioten egurre karreterara ateatzeko. Orduen? iketza itten ta, jo! oso, orduen... iketza... por ejemplo, lau tonelada... eurre atra biarrez, bazuten, iketza iñeskeros, tonelada erdi bet, goën-goena, ta ore mandoaki ateatzen zuten karreterara. Ori esan naizut eta.

– Eta, oroitzen zara nola egiten zuten ikatza?

Bai, denbora artan? pues... malda zenera? larrain bet bezela, zelai-zelaie... itten zuten? an, ta gero paratzen zu-, patzen zittuten? pues, tximenea itten zuten? ta... egurre(k) paratzen zittuten ola? ta obrenëan lau-bortz metro alto artzen zuten, ikeztegie, ta an, gero su maten zioten, ta etzioten ikusten ta, ore? pues... an egon biar zuten gañera, gaues beti, egunero? pues... ordu t'erdi edo bi ordu... pastueskeros? beix, ya kusten, ya, egurrek, ya, sue artzen tzuen edo etzuen artzen. Ta... sue artzen bazuten? lurre bota, gañetik, ta... etxioten uzten llama ateatzera. Ta ola, itten zuten iketza.

– Lan zikina, ez?

Bai! tta... gañea? gaues, txabola beri artan e... beri artan an, e! beix e... ittaute pues, e... eun edo... berraun edo, iruetaneun metro, an, itten zutelik, e... txabol'artan, an... gosarie ta bazkarie ta afari ta dena, ta an... beri artan, gaue itten zuten... denak.

– Eta, gauza hark nola zuen izena?

Ikeztegie erraten giñion.

– *Txondorra* edo, aditu duzu?

Bai-bai-bai-bai.

– Bero handia ere pasako zuten...

E! beröa ez! ez-ez-ez-ez-ez-ez, ez zuten, etzuten pasatzen; aiek? pues, kusten bazuten... ekea aunitz atratzen... dela edo sue atra-, ateatzeko? pues, an? orduen pues, arbatzen zuten... pikuaki te... altzurreki... ori, lurre? ta, botatze zaikion, gañera? botatzen zaikion, ez... eurre? ez... erretzeko. Gero? ba, ore; itten zutelik? pues, eztakit

16 *Eraman* aditzetiko era trinko eta plural hau Gulibarko Zian bildu genuen *deramazki*-rekin bat dator (Artola, 2014, 41. or.) haren iturria Imozko Goldaratzan baldin bazegoen ere, eta Ihaben herrixkan ere bai, Basaburuan, *zki* darakusan *neamazkilaik* bat eman ziguten, baina hemendik ekialderantz, aldiz, Txulapain honetako Usi herrixkan zehazki, bestelako pluraltzaila aditurik gaude: *txa: zematxan / zamatxan*, alegia.

zortzi eun edo... pasten zittuten ola, ta gero? zakuek artu? te... beri artan? bete zakuek; gero? mandoaki artu? te, karreterara ze-... ateatzen zute.

– Nora, zein lekutara?

Pues... ori? Iriberry o... Muskitz aldera.

– Hiriberri edo Muskitz aldera...

Bai, orti(k) bai; ortik? ortik urbillago.

– Eta, gero, handik? karretera nagusira edo?

Ori, or, or, karreterara ta or, e... denbora artan? bia-, kamiona tortzen tzen? eztagit, e... bieje batea artzen zutelik? pues, kamionek etzute (!) eamaten tzuten? ta... beño, bertze? pues e, kamionik ezpazen? pues igual galeran, mandoaki, galeraki, denbora artan, iretzien igual, egurreki te... gañera, pues, emen... panaderiek eta ola baiziren? pues... aunitzek? pues, egurre? berek artu? te eamatze zuten panaderia batera, zutenak, tal como, e... Ollakarizketan zen panaderie, gero... Aintzoañen ere bai, ta oiek? egurre? biar, biar baizuten labia... berotzeko? pues, eamaten zuten eurre.

– Eta, txondorra egiteko materiala nondik ekartzen zuten?

Ez, txondorra ez... tzu, be! materialik biarrrik, ortako.

– Tira, esan nahi dut gauza handi hori, ikaztegia edo...

Bai, ikeztegia bai, biño... ore? ori egurreki tte, itten zuten! dena orr eitte, an-antxen. Gañetik? lurre pixkuat botzen zioten, aize... ez artzeko? ta, ala... itten zuten; an etze beste, bertze materialik izeten. Or ya nola abartzen zuten? ola: erdi-erdien tximene?at goitti tte, or, andik... ats artzeko, pues uzten zuten... ola, ta gero? dena? a! psss... itten zittuë, txondorak, pues, e... esukelde au beno... aundiaoköak, biño igual? iru-lau, o igual... lau metrso¹⁷ t'erdiko... txondorak itten zittuten. Biño? kasu in biar tzen an, beti! gañean ibiliar tzuten, emendik? ta, «Emendik eskapatzen du ats, ats artzen du», pues-pues tira, artu te an, an... esportako... oietaik? esportakoak erraten zi-, esportaki, txiki-txikitu oiek? sí, pues lurre artu? te, botzen zioten? ta...

– Hura tapatzeko...

Bai; gero? pues-pues zortzi eunes o ola... ekia? or tzen... erdi illun ta ya, zortzi eunes o asten tzelik? orduen? asten tziren? ta... biño? etzicken eun betes, por ejemplo, dena kendu, alderdi... baztar te oietatik asi? te... pues, ore... suten bezela eoten baizen! dena... ori te, ya pixkuat... koño! te... ta pixkuat... pixkuat ortzen¹⁸ tzelik, orduen, artzen tzuten eskueki? te zakuetaa.

– Ongi kontatu duzu, e?

Bai, no es, psss... ai! ez baigera... aitzen? beñ ere kasi... eskeras? pues ya... oso torpe ta dago!

– Bai, bai, torpetu egiten da pixkat, bai. Aizu, eta, ikatza egiten hasteko...

E!... bakizu: emen montona bat egurre ibiltzen duu, pues, lotu? bat, gero bertze, gero? bertze, gero bertze, gero ontaik geñera, bertz, bertz, ola, mozten zuten segun; t'obrenean? egurre sar-, sartutzen tzen igual, siñäldue biño, oañik, au biño... kaguen-sos!

– Lodiagoa edo?

17 *Metro* eta *metso* soinuaren arteko bat aditzen uste dugu hor.

18 *Hozten*, alegia.

Lodiagoköa, ta, gero? aiek e, igual paratzen tzuten... dena tente! dena, eurre tente gelditzen zuten; beitti... zabaltxao? gero... zenbatenas goittiao? pues, pixkuat miarrao? ta ola, ederki kolokatzen zuten ta, kolokatzen zutelik? orduen, lur pixkuat bota? gañeti? ta... lemixko... iketze itten zuten e... beti... autse ta autse in bear zuten, artaik ere botatzen zioten? ta... ala, in zuten, iketza.

Biño arrazona eztu... ezta, emen, berak tte, igual? ikeztegi batian? itten, iñin zuten? pues, igual, amar tonelada iñen zituten, ta bertzoat? ikeztegi gei berian, igual, borz tonelada, do lau tonelada, ya... era, era... zuten eamateko leku... oberena zuten lekue? pues, ala itten tzuten. Bai, ori izein tzittuten? eztakit zenbat, iñin¹⁹ zituin biño, bueno! Jesus!... lau ikeztegi do geigo? in zi-, in zittuzte.

– Eta, ikatza egin ondoan, handik atera, erran duzun bezala...

Ori, eskus, tapa-tapa-tapa, eskueki... sartu te iketza ta tzakuen ta zakuek lotu te...

– Zaku aunitz ordea...

Bai, bai, ya, oi-oi-oi!... pues igual... eun zaku, igual; ni eztakit! ni... lan ortan ez naiz, ikusi in dut biño... lan ortan ez naiz aitu lanian, ez naiz.

– Eta, horretan arituko zen beorburutarrik ez zen?

Ez-ez-ez-ez-ez.

– Egiten zutenak ziren kanpotik etorriak?

Bai-bai, oiek... tziren, eztakit gio, nonbat paatu zuten biño, iru-lau anaie... berek itten zuten, in zutena.

– Eta, zergatik etortzen ziren Beorburura hori egitera?

Ori? ittera? pues... subastatzen tzen? oiana? pues ani-, anunziatu orai ere, portsiak[aso].

– Leku ona zen horretarako?

Eee! leku ona... leku ona izendu balitze? pues, arreki, igual... trabesak ere igual iñen zuten, do olak edo zenbait lekuen, biño? materiele txarra ta leku txarra? pues... iketze itera.

– Eta, leku ona ez bazen, zergatik ez zuten beste leku bat aukeratzen?

Bai biño, ezpaitte... aldiero, ordik²⁰, oiek, lote bati igual Beorburun artu zituten? ta, igual bertzoat? Orokietan, ta bertzoat, oiek, oiek... ortaik bizi baizire. Gu e... beti itxa, itxeko lanak itten e... pastu gara biño, oiek?... pues, ori? Fermin Sarasa? ori zen anai zarrena? ta... orrek, kontratixte? pues orrek, artzen zittuen lotëak? emen, Ultzaman, Geriñen²¹ ere izendu zuen, ta... Eguarasen ere bai, t'ibiltzen tzen subastan... subasta eta ak, iduritzen tzaizkion lekuen?... subastak artzen zittuina? ta gero, anaiek e... lanian an, enpleiatzen tziren, oianian, badakizu.

– Eta, herri-kaskotik hurbil egiten zuten? edo mendi aldean?

Ze, ori? ori, erritik... Beorburuko ori? seun dermioa nola den... Beorburutik? oso apartao dao Muskiztik, biño, ori. Ta gañera, denbora artan, Beorburun? pues, ez, karreteraik etzen!

– Orduan, mendian egiten zuten, herritik hurbil-eta ez...

Ez-ez-ez-ez! ori mendien, mendien ori!

– Bai, Beorburuko dermioan, baina...

19 *Eginen*, alegia.

20 Oso gauza bitxia da inguru hauetan *ordik* entzutea.

21 'Gerendiainen' da hori.

Bai, bai, ori? pues, segun... korruak? o... artuko zuten? pues, puskeak? eta tira, an... pues, «Non konbeni zaigu ittêa?», pues «Emen», pues beri artan itten zuten, ikeztariak? ta... an itten tzuten, bai.

Euskarari jarraipenik ez emanagatiko damua (1984)

Erderaz, aisago baite... mintzetzia? pues... ol-ola, ta au, oi-oi! on, nai luteke orai ikesi... euskera, pss! biño? eje! bederatzi ume izen ttut, azi te... eztiotet bati ere batre erakutsi? t'orai, ez... eztakite, ta nai luteke ya yakin biño, orai? denbora pastu de, tte ya gal-, «¡Joe, vasco, fuera vasco! ¡bah, tanto euskara!» ta, «¡Vale, pa quitar esos vascos!». Pakotxai utzozu! batek ideak... baditu? ôtzozu berax!... ezpaizu bertze makurrik itten? utzozu! nai bedu mintzetu euskera edo erdera do... frantsa do... nai duen gise mintzetu...-tzeko, biño? baakizu: ezpadiote erakutsi, arei etzaiote erakutsia're. Ja! emendik itxetik ezpaitza, tzara, ala ateatzen, lanera bertzeik...

T'orai? pues-pues, damutuik nago ez... ez erakutsie zebaitt, betire, defendetzeko. Por ejemplo, pues, yoaten dire Donostira edo... Bilbaure edo, edozein... omendik (sic), emen, Nabarran ere yoaten dere Elixondora? ta, tss! an beti euskera-ta aitzen da ta, an, olaxe or diote, ta batre entendatzen ta. Ori de pena... matau; nik entenda-tu... ittaut²² biño, mintzetzeko oso torpe nago beño beti ere... nee kontraik badire... baakitt.

Emaztearen nongotasuna (1984)

– Zure emaztea nongoa zen?

Emengua [Zigandakoa]; bai, ni Biorburuko semia bainaiz, biño bera...

– Eta, hark euskara bazekien?

Nik biño obeki! nik biño obeki! bai... ni onara torri artio? pues-pues, itxan beti aitteki te beti, ta amaki beti euskeras.

– Eta, harekin euskaraz aritzen zinen?

Bai, zebait bai, biño gutxi.

Txulapaingo herriez eta euskararen galeraz (1984)

– Txulapainek bi auzo dituela diozu, goitikoa eta beheitikoa?

Goittiköa? Ergoiena, ta... beittiköa? Elbarrena. Ergoiena? Aristregi, Osinaga, Osakar, Beorburu, Nuin, Larraioz. Ta Elbarrena? Garzirriain, Ollakarizketa, Untzu, Nabaz, Markalain, Belzuntze, Usi.

– Osinaga eman duzu; 'Osiñe' ez da erraten?

Bai, euskera... esan in duu, ibiltzen duu ori biño, betire...

– Eta, *Otsakar*?

Osakar ere badabil, euskeras biño, Osakar, klaro! A! Osakarren, lenao, eskola baitzen? pues... an euskera galdu zen Beorburun biño lenao.

22 Lerro honetan, ia-ia jarraian, 'ematen du' eta 'egiten dut'.

– Bai, e?

Bai; eskola izen duten errietan, euskera galdu de, le... lenao. Emen, Eritzen be-, berian? baduzu emen biño... ni onara tor nitzelik etzen kasi, or, euskera... mintzetzen, Eritzen. Berasañen, sin embargo, eskolaik ezpaitzen? ta... ta Eguarasen ere? eskola baitzen, biño Aostegin ezpaitzen? or... mintzetzen tzen euskera.

– Aristregin eta Osinagan orain ezta euskaldunik?

Ez, t'Osiñan? ezin... a! bai, bat beño, Etxalekutik yoana.

– Eta, herritik kanpo ere ez? Iruñe aldean-edo?

Iruñen... ez-ez-ez-ez, ez.

– Eta, Aristregikorik?

Ezta're, eztut zautzen nik, iñor; Aristregin bada, izein du... ola, lauetanoeite bost urte zittun an, Nuingo alaba, biño, or ere... arrek ere, eztu yakiñen.

– Gainera, Nuingoa bada, ya ez da Aristregikoa...

Klaro, Aristregire ezkondu, Ñuindik. (Aristregiko Ezequiel Villanuevaz): Egondumen tzen yolasen? ta, zautzen direla? ta... oso burue, oso ongi daukela, esaten dute.

(Errain Carmen): Uno de Aldaba, que vive en Aldaba, que es de...

– De Aristregi, que tiene noventa años o así...

Noventa y cinco me parece que tiene, noventa y más.

Etxean ez harrapatu izanaz (1985)

– Orain dela gutxi zu bisitatzen etorri eta errainak esan zidan, Iruñera edo ez dakit nora, buelta bat ematera joana zinela.

Klaro. Ba! nik, ni ere... distrae, pixkuat distraitu... bainaiz, e... pues ola, larunbetetan yoaten naiz, ezperen emen ere, lenao, igendetan t'ola, partidito at, musean ta, emen elkarreki juntatzen giñe, pues igual, bi korro do... musian ta ola aitzeko do, sei-musian edo ola aitzen giñen, biño? orai, i(y)endetan?... gazteok? pues-pues yoaten dire, or barna ta, bakarrik, bakarra gelditzen naiz itxian? ta, aburritzen näiz! te, orreatik yoaten naiz... larunbetetan, ezperen, tta! astëan? e... illebete, illebetian buelta bat o bai, ola iñen nuke biño, pss! berdín ya? pues, yoaten naiz.

Eztaitt, bier, yoain ote naiz edo, eztakit. Gañera familie ere an, bakizu, alabak eta... semia... ta an, Iruñen bizi dire? ta, bisitetto at, ikusi ere...

Beorburuko San Bartolome (1985)

– Hemen egiten da erromeria San Bartolomera?

Emen ez; Beorburun.

– A! hori, Beorburutik mendi aldera joanez; bada ermita luze bat, ezta?

Ba-bai, San Bartolome.

– Eta, noiz egiten da hori, eta nola? Konta ezazu...

Ori... lenao? e... prozesioan, asi, Larraiotz? Nuin te Biorburu? alde batetik; beztetik? Aristegi, Osiñaa... t'Osakar; ta bertze at, e... Muskizköa ze. Juntetzen giñen San Isidro egunian, t'an, meza entzun? te, gero...

– Eta, eramaten zen gurutzeren bat edo zerbait? Apeza joaten zen?

Bai, ya izeten da... San Bartolome relikie eta ori...

– Baina, galdetu dizut ea herri bakoitzak eramaten zuen bere gurutzea edo...

Gurutzia, gurutzia bai, gurutzia, prozesioan yoaten giñen ta... erri guzitan; e... ¿por ejemplo? Larraiotzen asi zi-, ezkile yotzen, Ñuingo... mugera alleatzen tzelik? Ñuingöa, Beorburuko mugera alleatzen tzelik? pues... Beorburuköa, eta andik... ermitta bittertio? pues, ta ortik... Aristregitik igual. Ta ya an, zazpi gurutze, errikoak, zutittu? te, gero, ori... itxi zute, ta gero, meza enzun? ta... gero? denak gosaria. Denbor ona bazen? kanpöan, ta... denbora txarra bazen? pues, baite, baite luze samarra ta, baite... lekue an? barnean, gosaltzen giñun? te gero, beix! gurutzeak artute? bakotxa bere errire, itzultzen giñe eguerdiko.

– Inor joaten zen hara zerbait saltzera?

Ba! eun ortan ez, ez; San Bartolome, oeite lau, aguztue oite laugarnean, ori baidute... Beorburu; ori ez zen... patron, patron San Martin de, biño, orduen zelebrazten tziren bestak, Beorburun ta, orduen bai, orduen... yoaten tziren, eta auniz, Larunbetik eta... leku aunditz...-zetik, e... juntatzen tziren, an.

Izeten dire, gaues, aunitz... ori, ametsetan ittezu to or-, ortako da ta an... batzuk enkargatz'uten meza, an zelebratzeko, bertzoatzuk... an ta, mmm... kostunbrëa zen ere, ne amak eskatzen tzun, iru buelta, emateko ermittei? te, mmm... buelta bakotxean, e... iru... padrenuestro ta abemaria... errezatu? te, ametsa? kentzen tzela.

– Amets gaiztoak eta?

Bai, gaixtoak bai; ta baze, bazen bat... nik banuen, denbora artan, Irurtzunen... zau-ne bat, aixkidea, ta... kasi, eztaitt... emezortzi o emeretzi... urte bazittuen? ta, oañik? pix itten men tzuen göatzian, ta andik, Irurtzundik, oñes etorri? te, an, meza bat enkar-gatu? te an eondu zen? ta... buelta oiek man? ta, gero? betire? kendu men tzaikion ori.

– Bai? ohatzean pix egiten zuen?

Bai, bai... klaro! badakitzu, amesketa? pues... berak idukitzen tzuen igual e... denbora artan, etzen, orai, o olako serbizioak eta ore? beti, e... zebaitt in biar giñiken, beittire edo... yoaten giñen? ta... an itten giñuen? biño guatzëan itte omen tzen, t'an etzen. Ta beti? e... egon tze ala, ta... ez men tzuenik in, orduetik lo que es.

– Orduan, egun hartan saltzaileak ez ziren agertzen...

Bai, bat edo... e! beti, karamelo... tzuk edo, beño famosa badela bat, oañik bizi de neski... yoaten tzen, yoan izendu zen.

– Andre bat? Nongoa?

Iruñeköa.

– Karameloak eta halako gauzak saltzen zituen?

Ba-bai, ta! pitxi ortatik. Urte bates yoan tzen an, ta... Larunbetik, kuadrille at yoan tzen? ta, batek emendik, te emendik entzuten mutiko bati? eta bertzeak, bertze lekutik artute, karameluek... artu? biño diruik ez artu; ajajajaja! etzen göartu! ya, ta... bertzek, bateik e... buelta atzuk eta bertzeak, bertzeak eta... bateik gabe, geldi-geldi-geldi-geldi tze, ez karameloik? ez diruik.

– Baina, uztarriak, yoareak, aizkorak-eta, gehiago eramango zituzten San Urbanora, ez?

Bai, Sant Urbenere.

Gaskuko San Urbano erromeriaren inguruan (1985)

– Bai? San Urbanora ere joaten zen hemendik?

Jo! oi-oi!

– Beorburutik-eta bai...

Bai! oi-oi-oi! emendik ara...

– Hori famatua zen, ezta?

Bai, Barrankatik eta yoan? tortzen tziren; Irañetako sekretarioak? eztakit nere adin-tsue edo... zebaitt e... urteon batzuk, geigo, izeten tzittute. Urte bates, nik, emendik, yoan nitzen. Ni ere, e... iñondik, al baut, yoaten naiz, ta... joñe! yoaten naiz emendik, karreteran? beitti ortara? ta, juntetzen naiz te, yolasean asi? ta antxe, elkarreki, oianian oñes ta, ortxen. Ire-, Irañateko (sic) sekretarioaki, t'andik? oñes, santu bera.

– Kontxo, oinez, e?

Bai, ori? erreumendako da ori...

– Zein egunetan joaten da hara?

E... orai zelebratzen da... igual, ogeite... maietzian? ogeite bortz...-tzian da, biño orai... paatute? edo aurreko iyendian? do... ondorean, ondorean. Biño nik, al baut, yoaten naiz, eunian; eunian ere mezara, e... zelebratzer ta, yoaten da? ta, yoaten gara? ta...

– Joaten zarete?

Bai, yoaten gara bat eo, bai-bai.

– Urtero?

Bai! bai, be! ezta, yende guti... ibili zen, izen da beño ya, adin... ni, ne adiñeköak eta zarragöak et'ola tortzen dire, eta or juntetzen gara obre-, obrenian? be! oite amarron bat edo ola... edo gutiago oañik, yende gutti. Biño? igendian bai, ya, yende guzie. Orai, pss, eun ortan, e... zelebratzen bada? pues, bakarka batzuk, yende... denak, bat, lanean Iruñen, bertze at fabrikän, bertze at, or barna ibiltzen dire ta, igendian... itzeskero, ya agai te, pues, orduen juntetzen da... yende aunitz! Bai, ni ez naiz, igendëan ez daike!

– Egun horretan ere inguruko herrietatik gurutzeak ematen dira?

Ez-ez, denbora batean bai biño orai ez.

– Eta, orain zer da? meza eta zer beste?

Bai, meza? e... eunotan izein dire... bueno, konfesioak eta nai duela... nai duena ta, ala ixeten dire ta... ori, in, eun ortan? yende auniz!... juntetzen da, nik ee... badittu bai, igual, amar urte enaiz egondu... igendian; ni... emengo apezare yoaten da ta, gero... bezte bí-iru apetz... yoaten dire? te, nai duena kofesatu te yoan, yoaten gara ta, ibiltzen gara. Biño ya... adin, adiñe... zar xamarrak, denak!

– Jende gaztea gutiago...

Be! yendea igual! gaztiak gutti, bat eo bertze izeten dire biño guti.

– Euskarazko mezaren bat ere egiten da, ezta? Ikusi izan dut, konfesionario batean izkribaturik, *euskaraz aditzen da* edo horrelako zerbait...

Bai, bai, bai... nai duena... konfesatu euskera? pues an... patzaute 'au eusk-, emen euskera'.

– Eta, saltzaileak bai, hara aunitz joaten dira...

Bai! orrara... ez denbora batian ainbet piño... ori? gañera? eun ortan ez, orai eztait piño, iendian bai, iendian juntetuko da, ni... izein ttu igual amar urte ez naizela... iendian... Ni eunëan yoaten naiz.

– Eta, zein gauza saltzen dira?

Ta, taberna patzaute, gero... karameluek eta, baitte...

– Ez, baina bestelako gauzak...

A! bai, lenao... ori beño, orai eztakit, uztarriek eta... fale ta...

– Ba, orain gauza aunitz erretiratu dira, baina zure gazte denboran...

Bai-bai. Bai, oaindikan äizkurrak eta gañera? gañera yoaten tziren, pues... iru-lau, Oztiztik ere tortzen tzeen? ta,.. igual, zortzi edo bedratzi... azuri, an berë artan... erre? ta... saltzen zittuten, nai tzuenak? pues... ta gero, denbora artan, emen Labason ere izendu zen famili et? eta, oriek ere yoaten tziren! orduen, tabarna izeten zuten oriek eta...

– Zer zuten?

Taberna idukitze zuten emen, ta... yoaten tziren? ta, jo! urte bates, a la noche, jo! «Eun duro atra nai dutena! jaguen Labasoköak! oi, ze dirue!»...

– Ehun duro, denbora hartakoak, e?

Ja-ja! bai, orduen diruä ze. Ta... be! gu... juntetzen giñen, obrenëan... zortzi do... amar? ta...

– Herrikoak?

Errikoak, an, ta, erritik? axurion bat erosi tte... ta, an erre, ta yoaten, gure... konture? pues, oso merkeago, psss, e... pues... ola, etzaikigun erdi ere gostatzen, ezperen? baakizu, oiek ere, yoaten tziren, sei edo zortzi... ta(b)ernari, Ortzizkoak, ta au eta bertze at? eztagit nik, iru ekinzu²³ urtero yoaten tziren, ta denbora ona izeneskero? pua! saltzen tzuten, doblea eaman... balute? igual, denbora batian, etzien e, etzen orai den... direna... bai.

– Eta, bazkaria han egiten zenuten...

Ua bai! ua! ua bai! ta, bai ta, gero?... gero?... atsaldeko seieta o zazpietan? pues, Gaskure, te or? kordionixte izeten tzen? ta dantza.

– Baina, hara joaten ziren saltzaile haiek, zer beste saltzen zuten?

Nolapai(t), orduen? segak ere bai! te... kottöak eta, ori... dire... beiek eta ematautena? pues, falia... sí, uzteiek erraten diogunei guk, ta, oiek? or, or, denbora artan... denbor artan kanpoan ibiltzen baitzen, bei eta biorra ta oiei paatzeko.

– Eta, kaikuak eta horrelako gauzak?

Bai, bein edo bein zerbai(t), kaikuek ere bai.

– Eta, nolakoak dira kaikuekin batera erabiltzen diren beste horiek, *goporrak* edo *abatzak* edo?

Eztaitt, ze...

– Eta, kaikuak zertarako dira?

Oiek? pues, deitzeko, deixteko... ardiek, deiz-tzeko; gero... ortan, zureskoak izeten tziren! t'onenen tapak edo... ola? olatxe, alde batetik erretxagoköa koxa ortan? ta... ara. Ta gero? arren esneaki, gazta itteko.

– Ordeñar 'deitzi' erraten duzue?

Deitzi, bai, dei erraten giñuen.

San Urbano artatzen zuen ermitañoaz (1985)

– Aditu dut denbora batean ermitaño bat bazela...

Bai, bai.

– Eta, herriz herri ibilita, hainbat etxetan ostatu ematen ziotenez, etxeotako kofradeek, San Urbanora joatean, beren gauzak saltzeko baliatzen zutela, ermitañoak bezperako gaua han berean pasatzeko aterbea utzirik...

23 'Ekintsu' ote da hori?

Bai-bai-bai-bai; erri bakotxan bazuen itxe bat, ta... itxe ori, ori, orrei? estanpa bat, Sant Urben egunian? an ematen tzion, ta... (zuzenduz) ez, ez. Ola? erris erri... limosna... biltzen ibiltzen tzen, eta... itxean, itxan gelditzen tzena²⁴, estanpa ori... bakizu.

– Eta, ermitañoari gaua pasatzeko etxea uzten ziona, hori zen...

Kofradia, kofradëa... ori.

– Eta, horrek gero, San Urbano egunean, bazuen eskubidea postua paratzeko edo?

Ez-ez; ore, orrei, orrei... Sant Urben egunian? orrek, izeten tzuen sukuldea ta ba... bazuen bai, on, orai e... t'ori, kofradiai? oiei? gosari, ematen txion ermitaño ore. Paatzen tzun, gisandera do... ori? bera, an limosna biltzen ta egon bear e baitzuen? pues, ixeten tzen bat edo bide, pues, gosarie ta... bazkarie, gisetzeko.

– *Gisandera* erran duzu²⁵; zer da hori?

Gisandera? pues e, denbora aietan? izeten tzen? pues, baakizu, funtzioa(k) ta izeten züten, por ejemplo, iltzen tzen... famili bat? eta, kartzen zutun (sic)... baziren? erri... geienetan izeten tzen bat, gisandera, ta... klaro! pues-pues-pues bat, bat, amistad e pixkuat e, baziñun zuk bateki? bertze at bertzeki? te, orduen gisandera kartzen tzen? ta funtzio egunian? pues, zelebratzen tzen, aide guziek... pues gonbidetu? te... bazkarie.

– Egiten zuena, *guisadora* bezala edo?

Bai, gisandera esaten... giñun.

– Bai, bazkaria edo afaria prestatzen zuena, ezta?

Bai, bai, orri jornala maten tzion? ta...

– Aizu, San Urbanon egon nintzen batean koadro handi bat ikusi nuen pareta batean zintzilik; han ageri ziren ermitañoak bisitatzen zituen kofradeen izenak, etxeak eta herriak; oroitzen naiz ere halako erramintak egiten zituzten saltzaile batzuk ere ageri zirela.

Ba-bai! oiek... denbora artan? pues, igual... bezperatik paatzen zittuten te oberenëan paa... izein... patuko zittuten igual, batek uztaiek, bertze at karamelöak, bertzoat... bertze gauze bat? eta, e! orai yo alde! orai ai de(e) beti golosinentzat denak, karameluek eta... ola? denak patzen tzittuten, t'obenean?... gero, bi do iru taberna're bai? nai zue-nak... nai zunak litro at e... ardo do, baso at ardo? do... nai zuenak artu? te je!...

Ta denbora artan, gaseosa...-on bat ere bai, te ola [...], iru-lau paatze zittuten beño an, kanpoan, aparte!... obenean, e... zeatik geo, eun metro, ori... ermëtetik... aparte. An, ermit(t)en, bueltaka ibiltzen giñen? denak? ta, ore?... paso libre uztetzen etze... aetan? paatu lisoa? te... uztaiek, eta aizkorak eta ba!... gauze aiek, ola, odolte franko.

– Eta, ermitañoa zer zen, apez edo?

Ez-ez-ez-ez-ez-ez-ez, ez zen batere ori... ez-ez; orai ere... t'orai ere yoaten da bat, Au-zeköa, yoaten da aera, ta orai kantuek eta...

– Bai, sakristan antzeko zer bait...

Bai, bai, bai.

– Eta, orain ere bada?

Bai, bai, bueno yoaten da ori, Auze Köa, Auze Köa oañik, ya...

– Egun horretan eta...

24 *Gelditzen zen etxean*, kasu bakan honetan.

25 «Guisandear: Cocinar, guisar. [Pamplona, Cuenca]» (Iribarren, 1984).

Ba, bai... San Urbane? San... ori?... orrek bi bideje ein ditu, ein dittu... e, Sant Urben egunian? por ejemplo, oite bostan? ta... iendian yendëa... juntetzen deleik? ere bai, bi... baje ein.

– Baina, orain ez da ibiliko herriz herri...

Orai ez! orai ezta... orai ez, bino... aera... yoaten da.

Janzkeraz zerbait (1985)

– Nolako lastikoa zen hori?

Elast... lastikoa, lastiköa!

– Bai, baina nolakoa zen?

Botonaki? te... bere, bera... dena... maukeki te dena. Ta gero? txaleköa, ta.

– Orduan, lastiko hura zen gaurko jersey baten antzekoa-edo?

Bai-bai, bai; denbora artan... geienak izeten tziren beltzak, eta gero, botonak, lau-bost botonaki, ola? ta emen, eskote pixkuateki?... aren gañetik patzen giñun txaleköa? orai, gutti... guti... iñor ez, txaleköa ezten faltatzen beiñ ere, beti... trajia itten batziñuen ere? traje konpletoa? txalekuaki.

– Eta, *chaqueta* edo?

E? txaketa.

– Ez du beste izenik? ‘xaka’ edo horrelako zerbait?

Ez-ez, nik e... beti txaketaeki, esaten giñun.

– Eta, *txamarreta* edo?

Bai, txamarreta... bai, txamarreta; igual, igual txamarreta.

– Eta, *pantalones*?

Pantalona.

– Eta, *medias*?

¿Medias? pues... pues gizonak, txapiñe.

– Hori ez ote *calcetines*?

Bai, bai.

– Eta, orduan, *medias*?

Galtzak.

– *Galtzerdiak* ez ziren izanen?

Galtzerdiek? esaten giñun guk; orai... ya ezta usetzen biño denbor artan? itten zittute... ola, mmm... illaki itten zittuten ta ara, orai polañek para-, bat bezela? euntzalieki eta ola? pantalonak ez...

– Ez zikintzeko?

Ez zikintzeko, ola ibiltzen giñen.

– Galtzak baino txikiagoak...

Galtzatxabalak! galtzak, xabalak esaten...

– Galtzerdiak ez; galtzazabalak...

Galtzazabalak, bai.

– Eta, abarkak? *zatak* erran duzu lehen?

Zatak, zatak.

– Eta, *faja*?

Paxa.

– Eta, abrikoaren antzeko zerbait bazen? Halako mantu bat edo...

Ori... aldi gutti, nere denboran, kasi... zebait ibiltzen tzen ola, funtziotan t'ola; 'kapak', erraten giñun, kapak; gur'itxean bat, zautut nik, an, Beorburun.

– Zerez, zerekin eginik zegoen?

Ori... eztakit, ze... izein tzen, arrek; betire oso mazizoa te izeten tzen, betire ta... ola, orai... gabardinak ta odo... bakizu, gabana do... ola bezela, pues...

– Belaunetaraino edo?

Bai, oañik beittiago, te aunitz. Ori, usetzen tzen funtziotan ta ola, ori; ta ori igual itten tzen, denbora artan, pues, egun urte igual o [...], aitek semeai utzi te... ni eztakit aiek ez non, fabriketzen zittuten, o nola itt-itte, eztut ideaik ere, nik eztut bein ere ibili izändu.

– Eta, sonbrerorik-edo ez zen batere eramaten?

Ba! emen zapela.

– Ez, festa handietan edo, edadeko gizonak edo...

Be! orr e baizen... zapela.

– Guk txapela erraten duguna, *boina* ezta?

Bai.

– Eta, emakumeek, barnean, zer janzten zuten? Gerruntzea, *korpiñoa*, edo...

Ba-bai, korpiñoa...

– Eta, *camisa*, atorra?

Atorra, bai, bai.

– Eta, *jubón*, kanpokoak?

Bai, ori... gerriti, gerritik orra pues, arropa erraten giñun; arropa.

– Txaleko antzeko bat edo, ez?

Ez, ez, arropa izeten tzen ori, beti, betireño.

– A, beheitiraino? *Enagua* edo horrelako zerbait?

Bai, enagua ya da... soñeköan azpiti, arropa... zela? pues, ori...

– Azpikoa?

Bai.

– Euskaraz ere *enagua*?

Bai-bai-bai, bai, enagua.

– Eta, orduan arropa da horren gainetik...

Orren gañetik.

– Eta, noraino ailegatzen zen?

Pues ori... arropa? pues, gerritik, goitixagotik, pues... ya, belaunen... azpiraño.

– Eta, gero, emakumeen zapetak eta...

Bai, zapetak ere bai, ta... galtza.

– Eta, buruan zerbait eramaten zuten?

Kia! pañuelon bat, pañueloa saten giñun... ola, pues... kuadroa? pues... bakizu, iru... punte patu? te emen, patu buruen? te gero, emen... buelta bat eman ta, ola ibiltzen tzien.

Gerla garaian pairaturikoak (1985)

Ta nik eztakit, ori, nik uste... euskeras ere txintxek erraten baiginittun. Eta Madri-llen... suertatu nitzen, itxe batean, aldatu zaikiden... General Radaki? te bazuen itxa, an, ta Madri... artu zenian? pues... ni beti akonpañatzen... bainuen? atzetik? pss ya... eskolta? ta nik enuen... zautzen Madri? ordur'artio? ta... eman tziren asistenteaki, te...

Euskal giroa erdaldunduz joan zenekoa (1985)

- Orduan, zure gazte-denboran ya, apeza erdalduna zen?
Bai.
- Eta, ez zenuten euskaraz erreztatzen ikasi...
Ez-ez, ez-ez-ez-ez, ezta.
- Etxean ere ez, amarekin-eta?
Ez! beti erderaz, errosario egun-nero erreztatzen giñun, miño beti erderaz.
- Eta, kanturen bat edo?
Eee! kantuek ere ez.
- (Carmen): El *Ogi zerutik* ya sabrá...
¡Hombre! psss...
- Baina, hori geroago sartu da.
Pues, justamente; y voy a Muskiz a los funerales y... ¡y no entiendo la mitad! y allí... ¡venga!... vasco y vasco y vasco.
- Ez, baina bestelako kantuak...
Eeez!... ez.
- Usiko andre zahar hark bazakien-eta, aunitz...
Ba, orrek, orrek, orrek yakinen tzun, bai.
- Eta, zure haur denborako zaharrak, igandeetan-eta, tabernan juntatzen zirelarik musean jokatzeko, haiek bai, kantatuko zuten noizbehinka, ez?
Baaa... ba! gauze guti, an... erderaz... mintzatz'etak bait...-ziren, pues... erderaz aitzen tziren, geen-geena.
- Baina, orduko adintsu eta zaharrak euskaraz arituko ziren...
Bai, beño badakizu, denbora artan? pues... yoaten baziñen... edozein itxetara? ama, laxterka!... atzetik eta... ala! itxera, itxera. Ta, gero... joaten²⁷ baziñen apezan itxera? ordun, an uzten zittun biño, bertze itxetan ez, ta gero, eskolara asi giñelik? eta, erdera beiz, ya... sei urtetan... bieli zireten... neri...
- Eskolara?
Eskolara, ta... geo an, dena, erdera-erdera? pues e... psss, abandonatu... utzi, bein ya, euskera. Euskera? zeatik, aideak bainittuen Iriberrin te Muskitzen? area yoaten nintze-lik²⁸ pues an... zerbaittekin, biño? aiteki beti erderaz.
- Aitarekin? ba, aita etxekoa zen, ez?
Bai; bai beño... badakizu, aitek eta... semie ta, zarrena baintzen? oi-oi, beti... beti... bazak-, baizakien... geiago gustetzen tzai-... zera, erdera? pues beti erderaz aitzen tzen ta, euskera?... erdi, pss, ikesi bainuen, ta gero ya, eskolara yoan nitzelik? oraiñik e, oroitzen naiz. Eeee! yoan nitzelik eskolara? pues, kasi enakien, batre erderaz, sei urte nittun? ta, maestrak erran tziren: «¿Cómo tienes el nombre?». «Esteban». «¿Y el apellido?». «Garbisu» «El nombre feo y el apellido más». ¿Y yo? utzi balin beleitte ni, kaka, itxera jun. Asi nitzen laxterka eskolatik ateratzen? ta, erriko... (a)gai ziren? pues, artu te... «¡No, déjate, ya, Esteban onea, ya... quédate, quédate ya tú», ta... ezperen? tzerri itzelie!

27 Jakingarria, agian, testu honetan, *yoan* y-duna lau aldiz agerturik ere, *joan* j-duna behin baizik ez azaltzea.

28 *Nin-* hasiera dugu aldi honetan hemen, argi eta garbi –geroxeagoko testu batean ere azalduko dena–, eta ez *ni-*, euskalki honen esparruan ohikoa den bezala.

– Bai? lagunek erran zizuten gelditzeko...

Bai.

– Arrabia eman zizun; zergatik erran behar zuen hori?

Ore? nik, ni tonto izein nitzen, beño berak ere ezta-, eztakit ze, ze... ori, eztakit. Gañera? psss...

– Nongoa zen maestra hura?

Ori Erriberaköa itzeindu tzen, bo!... Be! Iruñetik, eztagitt, enaiz oroitzen orai kasi, pero: «El nombre feo y el apellido más». T'orí etzaide, beñ ere, atzentzen.

– Orduan, sei urte izan arte euskaraz fuerte egiten zenuen...

Baaa! sei urte... bittertian? bai, biño gero... erdera, asi giñen? ta, erderaz e... aitzen tziren denak? eta ni, ni ere bai.

Seme-alabekin pozik (1985)

– Zein gaitz du, bada, semeak?

Fistula do... bai, te enkarnadure oso... gaixtoa du, diabete mi-, miñek ola, dauzke t'eta, badamazki ya, amabost egun? te, eztuela, ongi daiela biño, itxean eon nai luke ta, oan... itxera yoaten bada beiz... ezpaiti...-ttiote, ez puntuik bate man, beti purgatzen ai de? da beti, ore, analizetzen ta, orgatik eztiote andik uzten oanik. Eztakit bier yoain ote naizen [...] ari telefonoz, e... mintzetuko naiz te ya... atea den edo ya... segitzen dun.

– Zein da, hemen egon nintzen azken aldian etorri zena? Iruñean ezkondurik da-goena?

Iruñek, ezkonduik, e... seme bat.

– Bai, hori izanen zen.

Bai, bai, irugarna da, zarrena oanik e, ezta... ezkondu? te... ori, bigarna, itxan daona? ta, ori irugarna. Gero bertze bide battut, ezkonduiek, biño... Ba! bat Billaban bizi de ta, beztea beix, an du... Txantrean du pisöa, biño, e... bere... andrian ama Beuntzeköa da, ta... gaixki dao ta, onera tortzen da, egunero dui kabe. Ori, Orkoien edo... ez! Oror-bian, e... obran aitzen da ta, eunero ura Beuntzara etortzen da, bai. Ta alaba at ere bai, soltera; zarrena ta gaztena; bederatzi... orai, senide badire, ta...

– Eta, non bizi dira alaba zaharrena eta gazteena?

Ez, arreba ez, seme zarrena ta alaba gaztena; alaba?... gaztena, t'ori... tornero de primera da, seme zarrena, ta oien itxan, or eoten da.

– Biak elkarrekin?

Alaba... bi, iru alabak? an, kasi... batek emen dauke pisua ta bertzeak e... calle Acella da, Klinika Unibersitarian onduan da ori, bariante... bariante alleatu biño len, eskuiñera, t'an bizi dire, ta... seme zarrena an itten du ta, t'alaba... tienda baute, bertze... alaba, bigarna, ezkonduie, tienda dauke ta, arrei launtzera yoaten da, tiendara, arreki. Ta, orai... satisfetxo nago alare, e denak? e, lanian ai dire ta denak, bu! betire... pues bakizu.

Ta ori, zarrena, beix, ori... tornero erraten, ori, esan di...-zuten ori? pues, ori... bi-iru fabriketan eondu de ta, emen enkargatue in nai zutela? bertzian ere bai? bertzian ere bai?... ta gero, iru do laun, iru... de lau, lauen artio? bajera bat artu zuten? en Berriplanon o Berriozarren ta, asi ziren bere kontuen, biño, tor tzen au [krisia], gero, ta adios! emen zorra? an... ezin pa(g)atus? te oso gaizki ibilli de ta, ¡bien! bi urtes edo geigo?

Lekaunen artzai; mira, artzai ibilli de, klaro! ze?... etzuen berste... puestoik? eta, beix, orai ideki beaute leenao...-ko fabriken? lanian aittu zen lekure? ta, or, probexen. Biño, oanik eztiote fijo itten, ajaja!...

– Hori, seme zaharrena? Lekaunen egon dena?

Iru urtez ez, biño ba! urriz, bi urte t'erdi bai... badakitzu, familia... luziak emen, diooo!...

Minbizia gertutik ezagutu (1985)

– Carmenek erran dit ahizpa hil zaiola...

Bai, bai, bai-bai; bai ore, ori're, kantzer, beti galde itten neon? yoaten tzelik? eta, «Ba! ongi dao, ongi dao». Ni?

– Igual erran nahi ez...

Klaro, klaro, eje! beño? gero... ya! ni... bi operazioa(k) ta, ongi diaiela ta, len biño, ño... ta gero, eztaki(t) nik, eun betes Iruñera yun ta: «Ori, ze... modu ori?», ta «Ezta-
kit, ongi [...], eztakit nik, bere... beraiek dakite». Ba! neri Carmenek ongi zela esaten
tziren biño, beldurra ona balitz! nik ere, e zazpi urtes, tze kantzer ibilli nun nik, nere
andrëakin! Battu ya, emezortzi... urte ya ilik, biño beratzi urtes, gaztëa bazen ta, geo
ori, ddiooo...! zerbait txarra, ddiooo!...

– Eta, horren kontra ez dute ezer asmatzen, zientzia aurreratzen ari da, baina...

Bai ta, paratzaute periodikuan ta oi biño, dioo! e... or? ta, emakumetan, berrogei
urtetaik... berroet'amar bittertio, ori, gaitz orí... artzen duenak, akabo! iräingo du...
Nereai, petxoa kendu zion? arrek... Klinika San Migelen tzen orduen... ta, etziren
erran, ta...

– Andrearena?

Ez, andreaki eondu nitzen, ta... petxoa... artue. Orduen, muestra... Madrille... biel-
tzen tzuten, emen etzen, orduen, analizetzeko ta... olakotaik, ta, klaro, an tziren ta
etziren? bat ere analizatzen tzeleik eta; biño? yoan nitzen botikera, ta botikarioa nuen...
aixkidëa, ta, erran tziren: «Nondako duzu... au, medeziñe au?». «Andriandako!». «Ba!
notizi txarra eman biaizut piño, andreik gabe geldit(t)u za(r)a», erran tzien. «Mmm...
betire, e... badakit, familiä, numeroso... in duzule ta, izeten dire beti biño, fin dde!
arrazoin... dena izen ta're zuk utzi, utzozu, utzozu berai, berak nai duena itteko, zeatik,
ezperen... e, minutotik bertzera, andrei gabe geldittu...». Ta zazpi urtes, bizittu zen
biño... Medikua: «Ya puede, ya, ar tzake edozein gauze» ta. Señale txarra.

– Minez egon zen?

Oi-oi-oi-oi-oi-oi-oi! berrix, pastu zittuen... eztakit, lau o bortz urte... ta gizen-gizena
patu zen, edozein gauze yateko ta edaten zun ta, biño gero... atzen, ai-ai-ai au de! eztu...
ezin yan, ta bertze ore ezin yan ta, badakiñue²⁹ e... gauze bat bazen, itxan ezpazen? ore
eskatiar tzun. Oroitzen naiz, eun betes ere, gaueko... ba! izein tziren, bederatziek edo
ola, ta erran tziren: «Ekatz...-tzazu... sagarra, erre eta, yain nuke gustora orai». T'ëtzen
itxan, sagarrrik! oroitzen? ta, leno? orduko autoa, ta... citroën, dos caballos, beiti...
ta erran nion semeai: «Vete, vete! estazionendik, Lizasora ta kartzu, sagarrak». Kar
zittuen sagarrak, pues sagarrak, biño ezta probatu're, psss.... ta gero? eee!...

29 'Banekien' bide da hori.

– Gaixoa! Kapritxosoa jarri, baina, hala ere, ezin...

Ba! ore? ba!... ongi... zelik? bueno! ore? ¡bien! oso ongi... eamaten giñion, biño! oi-oi-oi! paatu zen! erraten tziren aunitzes: «Il, il in tzaik! il, naio nukék... mazöa artu te iltzen baniñuk». «Orí eztaike esan, makumea!». Utzi ta, oi-oi! ibil tzen, oiñazes, oi-oi-oi-oi-oi!... ezin.

– Ez zioten ezer ematen mina kentzeko?

Ba! emain tzioten! gero? etzuen, etzioten batre itten gero, inyekzioak eta ala maten zittiote ta, eee!...

– Hasieran bai egingo zuten...

Orduen bai, orduen bai, gero ya bat ez... ta? ta bat ez.

– Betiere, mina alibiatu pixkat-edo...

Ba! oi-oi-oi-oi-oi!... ondarran, bate etzioten; ezta... psss... oi-oi-oi!

Erleez zerbait (1985)

– Hemen erleak izan dituzue?

Bai.

– Hori ez didazu kontatu...

Bai, òrai ére báttugú, badúu, ba. [...] Anáie eta... zár samarrá ta, árrek? árrek àrtzen zittuén eztíe ta arrék ibiltzen tzén, biño ník? e, lána baigiñuén emén, dénborá artán, garíe ta patáta ta, eráiki ín giñituén ta, etzáizkien... éz nuen bétí yo... orí, órtañ...

– Ez gehiegi ibili horretan...

Kláro, ézta...

– Eta, orain non dituzue?

Orái? sabáian, orái apéza emén, báadá, óso afizionátue, báí eta, ta órè? or, órrek, óri etortzen dá, t'orrék eiten tzióñ, ín tzióte... éztie ta... óri.

– Apeza nongoa da?

Orí, káguensós!... Ábaurréa aldéköa, bétire, eztaítt... Esnótz! Esnózköa, Villanueva du [abizena]. Bíde... irú, irú anáie, irúek relijiósoak.

– Esnotz hori Erro aldean da, ezta?

Nèski bai dá.

– Euskalduna da?

Éz-ez!

– Ez daki euskaraz?

Bai, aí de... pixkuát, entendátu itt-ítten du biño...

– Gaztea da?

Ez! izéin ttú... bueno! izèin ttú... éztaitt, iruétanoéi urté pàsa izein ttú neski, biñó estranjéruan ta ibili dé, óso... ói-oi-oi!... or, estranjéroan eóndu dee... íru anáieki eóndu diré or, eztakít non... ibílli dirén? ta, ói-oi! óso... óso kariñósoak ta óso... ói-oi-oi!

– Majoak, jatorrak?

Ói-oi-oi-oi-oi!... edozéin lekutén kustén badiré oñés, artú te, áutöa... geldittú te, obrenéan Iruñéra daié? ta, «¿Ande vas?», «Pues a casa». «¡Hala! móntate, en el coche, te llevo». «Que no, que ya vendrá alguno». «Ez, ez, ez!»... kíetatú? ta, artú t'itxéa, bai.

– Eta, erleez zer kontatzen ahal duzu?

Be! gáuze gutí, ezpáitut e...

– Nola deitzen dira kajon horiek, 'colmenak'... *erlauntz? erletokie? erlesaskie?*

Èrlesáskiak, lénaó? óiek... in, itten tzirén bèri óntan, te izèten tzirén e... olá, àusus pátu? espórtaka ba... badakízu, áus, alrebés pátu? te... azpíen izèten tzirén zabál ta, goièn? beíx, miár-miárta itte(n), óla, o sea... t'óiek érlesáskiek.

– Eta, non paratzen ziren?

Oiék? pues emén, balkónpian, oiéi... etzióte... euríe ta orí... yo beár, betí, emén balkóna... len, lénao, orái in dùgu émen biño, lenáo balkóna eméndik artú zute, balkón orrén azpín? ór ibiltzen, ór izèten tziré; eta ítz-, láu edo bórtz batziren ni ónara... tór nitzélik, ní Bèorburúko semía baináiz...

– Zenbat denbora behar dute ezta egiteko?

Oiék? pues... zenbáit, zenbáit aldís e, denbóra óntan, kèntzen dioté? ta, géro beís, úrrien, béis. Bèño óri... da gáuze bát, éstraordinária, betíre... denborá... óso oná yoàn biar dú te... akónpañatu, ezperén? pues... úrrien kèntzen tziáite, urtéan a... béin. Géienéan, zénbait aldís, bi aldís? biño...

– Eta, ezta biltzerakoan, nola joan behar da?

Déna... bai, bai, jantzí... orái... atórta eré ta plastíkoakí tòrtzen dá, ta déna guántiakí te ezperén, ta...

– Eta, aurpegia tapatzeko zerbait erabiltzen dute?

Bai, bai, déna, déna, búrue ta... déna, ezperén ói-oi-ói!...

– Eta, ikusteko, nola?

Pues e... bàdakizú, orái... ízten baitugú or ibiltzen dirén zàpel oiétaik e, bére antiójoakí te... t'orrekí? t'orrelá.

– Bai, gisa horretan, e?

Ba! orí... óso lísto da! ói-oi-ói! arrepátu dú afízioa... ói-oi-ói!...

– Eta, erleak dauden etxeko norbait hiltzen denean, hildakoaren senideren batek ez die zerbait agintzen? «Nagusia hil da; egizue ezti gehiago haren aldeko argizagia izateko» edo?

Ez, éztut... ník éztút óri béiñ ere záutu, ez. Émen, Aoztégin bauzú, bat, Teo(d)oro, afizioe... aundíe zuéla ta... érle aundík izèndu duená? orái, nère kínteköa dá? ta, orí eztaít.

—Horrek izan ditu...

Bai-bai; ok? pues, bakizú? pues, pñmaberán, pues... botàtzen ttutzé ta, bértze... erléa, bértze... famíli bét bezelá? ta, oiék, kanpóra botá, bòta in tzuté? e án, é(r)le... érlesás-kien daudéla, eta oberén? yoàten diré oianéra, ta án? gélditzen diré, lenáo... arítzek eta izèten tzirén, uékua zutelá? ta án... pànaliák eta án itten zittuté.

– Bai, bai, aditu dut holakorik, bai [...]; eta halako lekutik ere bil daiteke?

Bai, klaró, klaró, klaró... Bai, orrék? ptxe! lenáo, gúk bordán, o Aoztégitik, eméndik beño ùrbillaó daó? ta, bágiñiguzén? óla, aríz betzúk zas... óstua ittekó... lénaó, árdiek bàizittutén, émen itxán, ni... etòr biño lén. Ta báziren ór, uéköa zuténak... aríz betzúk? eta, an? urtéro kasí, bát edo bértze geldítzen tziren, ta orrék, Aróztegiko orrék, agúdo kusí? kusí te, biltzen zittún? te... eámaten zittún ítxera. T'orrék? ói-oi-ói!... Aróztegiköa, orái éztagit, ze yá? zár samarrá, ya, neé adíñeköa dá ta... psss, biño... afizio áunitz izèndu dú? órtako.

– Eta, zergatik botatzen zituzten erle batzuk erlesaskitik?

Bàkitzú, pues, èmen eré? bákízúuuu... famílien eré? por ejemplo, pues... láu-bórtz... sénide; pues bát? gelditzen dá itxán ta bértz... Ta, orí... duté erléak eré, ya, pues... ya... é(r)le... batián, famílie...-takó? iñí tao, biño bí famílie eztaízkielá! báakizú, botàtzen

zittutén. Oiék? yoaté-? yoáten dire! kláro, kláro. Bai, oràì eré? óri itten dá, izéndu dut nik eré, bórz úrte ut emén, emén, sagárrak battúgu ta... planták eta, sagàrran plantán? pues, oláxetan, ta bertzéa... íl in dú, zeàtik réina ersáten³⁰ duténa orí, pues yoàten dá... ór bárna, ya... léku billétzéra, te bittértio? bertzé-, bértzëak, dénak montón bátian pa-, bai, bàta bértziai... arpátu? te, eòten diré zilíntzen; eztáike i...-kùsi gabé? eztáike síñestátu'de óri; óla, oláko...

Geró? arrék, lékue o béar tzaiolaík? pues, ártu te yoàten diré dénak, t'án ittéi-, án itáute beís, beré a... lekúe artzàutatelík an, in, íttauté eztíe ta án... án ittáute.

Satorrak harrapatzen (1985)

– Eta, satorrak-eta harrapatu izan dituzu?

Bai, artu tut ta aurten... tzerena, yoan den urtëan, ainbet; biño eztakitt, amaron bat edo, arpatu ttut, bai.

– Politak dira, e?

Bai, oiek... ejeje! polite(k) tire, biño... lan txarra, lan txarra ittaute, ejejeje! soroan.

– Gaixoak! Horiek ere bizi behar...

Klaro! oiek? ori... lonbriz edo txintxeria erraten diogune, oie(k)... oiek arpatzeko itten ttute emendik, e? ta... an, ra-rra-rra-rra ibiltzen dire ta, alto! oiek, ori? or, asko gustatzen bai, men tzaiote.

– Ikusgarria nolako esku eta mutur fina duten, e?

Ejeje!... bai, muturre eztuzu garbi-garbie ikusten biño, atzaparrak, eje! orreki... itten baitute dena; igual itteizute, emendik... igual, be! berrogei metro igual, itten dittuzte? pues-pues, tapa-tapa-tapa-tapa ta, eztait nola in... itten duten... olako konduktoa, edo olako...

– Kuriooa da, beti hor azpian eta...

Ya lo creo.

– Eta, arnasa hartzeko, nola moldatzen dira?

Bai! biño ore? ori... zulotik izen baitute! beti... obrenian egiten baitute, ogei metro eitten batute? pues, metro bakotxan pixka... uzten diote lurre pixkuat... e atratzeko.

– Ateratzeko, e?

Klaro! aizia sartzen baite.

– Eta, bidea laster egiten dute?

Oi-oi!... oiek... ¡bueno! laster aundik eztakitt iñen duten biño, oiek... batre... an, ondoan bazabiltze... sentitzaute ta... eitten baitute; obenean, emen dute bidëa? beño, emen... ittote³¹ zulu at e, defenditzeko zu-... ta zuk, goittitik eztakizu non daon zulu ore, ta an, an geldi-geldiik egoten dire, ta, gero, sumatzen baitute, ya... aitzen dute, emen: «Ori yoan da».

– Aditzen badute norbait badabilela...

Arata? ta, ordien? pues, an sartzen... geldi-geldik; tta!

– Pasatu arte, e?

Ya, ta ge-, pastatuta? ta gero...

30 *Erraten eta esaten* nahasirik.

31 *Ittaute* da hori, 'egiten dute', alegia.

- Aizu, aritu izan zara ehizan?
Ez-ez; ni... ní beñ ere ez.
– Zepoak paratu besterik ez...
Zepoa pai, zepoak orai're... aurten eztut oañik kanabite arpatu biño yoan den urtean, ogei biño geio arpatu nittuen.
– Nola paratzen duzu zepoa?
Oiek? pues, e... lenik, miretiar du(t) nondik duten pasoa, xatorrak, eta an, patu txapa bateki, ta... andik pasten direna(k), denian, pues, saltatzen da ta, ori, ola... arrepa-tzaitut, bai.
– Aise?
Bai! zea, aiek, aan paatu? te... gaur ezpauzu? bier, ta... bier ezpada? etzi te... an, orain ere badauzkit sobran bide pat-, patuik.

Basoko animaliak direla-eta (1985)

- Azkonik bada hemen? Azkonarrik?
Ba, ba men dire ba... bat, bat eo bertze, ala diote. Nik, beiz [...], lenao au, obeki... banakizkien izenak eta ola, biño orai? oi-oi-oi! ya, atzendu dazkie³² ta, ezpaitut afizioik ortara.
– Baina, hori badakizu zer den, e?
Bai, azkona bai, bai-bai-bai.
– Eta, badira beste batzuk, txikiak baina aski ausartak, *panikesak*, euskaraz *erbinu-deak* edo...
Eztait no-, eztakit nola dioten, enaiz oroitzen nola...
– Eta, beste bati *juñe* esaten zaio...
Bai, fuina diote, bai.
– Euskaraz, fuñe?
Fuñe, fuñe, bai. Ori... gustora yat-, jataute ta... yateko, ona da³³.
– Eta, horrek kalteak giten ditu?
Ez-ez! ez-ez-ez, orrek ez; ez, ori... ori oianetan izeten da, ori, oi arboletan e... kusten badut? pues, saltoa emendikan e... emendik onara, andik orrara ta ez...
– Ikusi dituzu zuk horrela, saltoka?
Ba-bai, nola! ba-bai...
– Arbol batetik bestera?
Bai; ez! ezta, salto aundiik eziñen du biño, tal como emendik mei, mai ontaik e... beste eskiñera bai, ta... arbola aundi oietaik e, pues... zebaitt sumetzen baute? pues, goitti... io te? pues salto emendik, salto an da, salto itte emendik, salto an ta...
– Baina, fuñe ez da muxarra...
A! muxarra; muxarra... bertze, bertzea.
– Arratoiaren antzekoa, grisago eta txikixeagoa, e?

32 Berriemaileak, oraingoan, Beorburuko berezko *zaizkide* era erabili ordez, *dazkie* eman zuen, amaren minztairaren eraginez nonbait, hura Uharte-Arakilgoa izan baitzuen.

33 Berriemailea zalantzati ageri zen aldi honetan, *j* zein *y* ahoskatzerakoan.

Bai-bai-bai.

– Eta, arboletan ibiltzen den beste bat *ardilla* da, ez?

Ardilla? orrei, esaten tziote..

– Bai, *burtxintxa* edo *katapurtxintxa* edo... Gipuzkoa aldean *kattagorria* esaten zaio.

Bai emen ere... kattagorri're bai.

– Eta, horiek harrapatzen dira?

A! psss... eztagit orai, gutti... izen biar du, zeegatik, lenao? zen, arbola asko beitziren emen, ta denak uekoak eta zittuten... barrendik eta olatan... defenda itten tziren, biño, orai oiana, e... guti baite emen ta terminuen, gañera... aiz-... aizian, aunitz ibiltzen dère... ta, arpatze ttute gutti, Irurzun da oietaik.

– Eta, beste txiki horiek, *mitxarro* edo *muxarra* edo...

Muxerra, bai.

– Horiek harrapatzen dira?

Ba! emen, oietaik, aspaldian eztut kanoik ere kusi.

– Ez? Ez dago hemen? Oihana eta bada hor...

Bai biño, leku gutti baite ta... baakizu, tzakurrek eta... aunitz ibiltzen dire ta, eztakit.

Makila elizan ahazturik utzi (1985)

